

# BALEIKE



ESKUBALOIA ZUMAIAN

**BALOIAK  
ESKUAN  
50 URTEZ**





BALEIKE  
%5  
BAZKIDEA

7Kg  
1.200bira/min

279€

INDESIT  
IWC71252



449€

Inox  
3 bandeja

BALEIKE  
%5  
BAZKIDEA

WHIRLPOOL  
WFC3C24PFX



429€

8Kg  
1.200bira/min  
Inverter motorra

BALEIKE  
%5  
BAZKIDEA

BOSCH  
WUQ24468ES

ORDAINDU  
12 HILABETEAN  
Interesik gabe

BALEIKE  
%5  
BAZKIDEA

719€

203X60 zm

A+++

INOX

SIEMENS  
KG39NVI45



144x55 zm

249€

BALEIKE  
%5  
BAZKIDEA

160x55 zm

269€

TEKA

SALTZEAZ  
GAIN,  
ARRETA ERE  
EMATEN  
DUGU

TIEN 21



www.endañetazumaia.com



# BALEIKE 289

2019-UZTAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
ARNAITZ RUBIO APREA

## Aurkibidea

- |    |  |    |   |
|----|--|----|---|
| 4  | <b>Hitz tantak</b> Maria Maya Manterola<br><i>Juan Mari Lopez</i>  | 31 | <b>Osasuna</b> Rosa Azkue<br><i>Eguzkia bai, baina neurrian!</i>                                      |
| 6  | <b>Izpiak eta hizkiak</b> Sonia Alvarez<br><i>Zubia Galego ibaian</i>  | 33 | <b>Heziketa</b> Izar Arregi<br><i>Aitona-amonen egitekoaz</i>   |
| 8  | <b>Hainbat aburu</b> Ainhoa Azurmendi<br><i>Ez dute baimenik eskatuko</i>  | 34 | <b>Zientzia eta ingurumena</b><br>Asier Hilario Orus<br><i>Mutrikuko Amonite erraldoien misterioa</i> |
| 9  | <b>Errematea</b> Iosu Alberdi<br><i>Zer pentsatu</i>   | 38 | <b>Orduan bai</b> Imanol Azkue<br><i>Pasajeko ontzia, ubera ia galdua</i>                             |
| 12 | <b>Erreportajea</b> Jabi Gonzalez Toston<br><i>Arranplan jaio eta botez bote 50 urte</i>                                       | 42 | <b>Kultura</b> Juan Luis Romatet<br><i>Koroaren erronka errimatua</i>                                 |
| 17 | <b>Elkarrizketa</b> Izaskun Urbietta Esnal<br><i>Bizitza dedikatu nahi diet ingurumenean eragin positiboa duten proiektuei</i> | 43 | <b>Agenda</b>   |
| 22 | <b>Erretratua</b> Julen Aperribai<br><i>Miriam Romatet, kulturaren talaiatik herriari begira</i>                               | 44 | <b>Literatura</b> Asier Arakistain<br><i>Bortxaketa sistematikoak</i>                                 |
| 26 | <b>Bazkide kluba</b>   | 45 | <b>Nire txanda</b> Josu Waliño<br><i>Kultura digitala</i>   |
| 28 | <b>Plazan bazan</b>  | 46 | <b>Azkena</b> Juan Luis Romatet<br><i>Mary Agnes &amp; Denis</i>                                      |

BALEIKE

TOKIKOM

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu z/g. 20730  
AZPEITIA  
943-86 15 45  
aldizkaria@baleike.eus  
www.baleike.eus

### Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia  
**Zuzendaria**  
Juan Luis Romatet  
kattan@baleike.eus  
**Erredaktore taldea**  
Izaskun Urbietta  
Maria Maya Manterola

### Diseinu arduraduna

Ane Azkue  
**Hizkuntza arduraduna**  
Imanol Azkue Ibarbia

### Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua  
publizitatea@baleike.eus  
**Administrazio arduraduna**  
administrazioa@baleike.eus

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-405/94  
**ISSN:** 1136-8594  
**Tirada:** 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

k  
kutxabank

# Juan Mari Lopez

---

## TESTUA ETA ARGAZKIA MARIA MAYA MANTEROLA

---

Duela mende erdi hasi zen Juan Mari Lopez hondartzan izozkia saltzen, karroan. Itzurun hondartzako etxolan izaten da orain uda sasioan. Izozia egiteko eraz, izozki industrialek merkatuan duten pisuaz eta bezeroez aritu da Lopez.

### **Nola sortu zen gaur egun 'Lopez izozkiak' bezala ezagutzen dugun negozioa?**

Gure gurasoek Bergaran barkilloak saltzen zituzten 40ko hamarkadan, eta handik etorri ziren Zumaiara. Seme-alaba guztiak San Telmo kalean jaio ginen.

Hasieran, karroan saltzen zuten izozkia. Altzairu herdoilgaitzez eginiko garrafoi batean sartzen zuten, eta hura izotzez inguraturiko ontzi baten barruan. Horrela hasi ziren izozkia bi hondartzetara eramaten.

50 urte bete ditut aurtien hondartzetan. Urte bakar batean egin nuen huts, soldadutzara joan behar izan nuelako.

### **Lan prozesu guztia eskuz egiten zenuten garai hartan.**

Esku lana zen ia guztia. Oinarrizko osagaiak izotzez inguraturiko irabiagailuan sartu, eta arraun itxurako pala batekin ateratzen zen gero ontzira. Makina elektrikoak erabiltzen hasi ginen gero: aurrerapausoa eman genuen produktuaren kalitatean eta produzitzeko denboran.

### **Zapore bakar bat egitetik, hamabi zapore saltzera igaro da negozioa.**

Banillazko izozkia edo *mantekaua* egiten zuten gurasoek hasieran. Ondoren, marrubizkoa eta txokolatzekoa ere egiten hasi ziren. Jendeak zapore gehiago eskatzen zituela eta hasi ginen gehiago sortzen.

Duela 40 urte, negozioa nire esku geratu zenean, limoizkoa, jogurt izozkia eta hur zaporekoa saltzen hasi nintzen. Kremazko edo sorbetezko oinarria du errezetak, eta gero, nahi duzunarekin eman diezaiokezu zaporea. Kremazko izozkiak esnearekin egiten dira; sorbetezkoak, aldiz, urarekin.

### **Zein saltzen duzu gehien?**

Jogurt zaporekoa. Lehen banillazkoa zen, baina ohiturak aldatu egin dira. Bero handia egiten duenean limoizkoa ere asko kontsumitzen da, freskagarria da-eta.

### **Esperimentatu duzu zapore bereziren batekin?**

Olagarro zaporekoa egin nuen duela hiruzpalau urte. Ramon Chamorrok estraktu bat ekarri zidan. San Telmo bezpera batean egin nuen, eta probatu genueno, behintzat, ez zitzaigun gustatu. Arraroa zen.

### **Neguan ere saltzen al duzu?**

Udan kukurutxoan saltzen dira, eta neguan etxera eramateko ontzietan. Izozia beroarekin erlazionatzen dugu hemen. Badira bestelako ohiturak ere; nordikoek, esaterako, urte guztian zehar jaten dute. Ohitura kontua da.

### **Izozi industrialak merkatuan duen pisua nabari da salmentetan?**

Badaude hiruzpalau multinazional, eta uneoro promozionatzen dituzte beren produktuak. Prezioan aldea egon badago; kalitatean, norberak bere esparrua defenda dezala. Gu ezin gara haiekin lehiatu. Izozi litro batek bi edo hiru euro balio ditzake supermerkatu batean, eta guk, bederatzi euroan saltzen dugu. Etxean eginiko izozkia dela kontuan izanda eta gainerako artisau izozkien prezioekin alderatuta, merkea dela esan daiteke.

### **Nolakoa da zure udako lanegun bat?**

Goizero hiru edo lau orduz lantegian izaten naiz, izozkia egiten. Eguraldi txarra bi edo hiru egunez luzatzen bada, eten egiten da produkzioa, eginda duguna saldu arte.

### **Turista kopuruaren igoerak badu eragina zure negozioan?**

Zumaiarrak dira gure negozioaren ardatza. Azpeitiarrak, azkoitiarrak eta zestoarrak ere bezero bikainak izan dira urteotan. Urola bailarakoak izan dira gehienak.

Eguraldiak eragin handiagoa du salmentetan krisiak edo turista kopuruak baino. Bero egiten badu, denok garaile. ■■■





## Zubia Galego ibaian

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** SONIA ALVAREZ

Galego ibaian aurkitu genuen burdinazko zubi hau, Santa Eulalia herrirako bidean. Huesca eta Zaragoza probintzien mugan dago. Zubi azpian, apurtutako presa bat zegoen. Burdinazko zubia, presa ibaian. Gizakiak egindako azpiegiturak naturarekin nahasten dira paraje hauetan.

Kotxe gutxi pasatzen diren, baina hiru bat minutu egon ginen argizatzen. Kamera eta pertsonaia errepide erdi-erdian jarri behar genituen, eta kotxeak pasatzen direlako, argazkia bizpahiru aldiz atera behar izan genuen. ■■■

**Datu teknikoak:** Iso 200; f5,6; 200 segundo.









AINHOA AZURMENDI, KIROL AHOLKULARIA ETA EHUKO IRAKASLEA

## Ez dute baimenik eskatuko

**O**rain bi aste Kolonbiara lanera joateko zortea izan dut, Iberoamerikako emakumea eta kirola sarea berpiztu nahi dutela eta, arlo honetan egiten dugun lanaren berri emateko, eta bertan egiten ari diren proiektuak ezagutzeko. Ekitaldian parte hartzeko online inprimaki bat bete behar zen, eta atal zehatz batean bertara joateko nire nagusiaren baimena erantsi. Saiatu nintzen hori gabe bidaltzen, baina ez zegoen modurik. Azkenean, “ez dut inoren baimenik behar” jartzen zuen dokumentua erantsi nuen deseroso.

Egun gurean horrelakoak arrotzak iruditu ahal bazaizkigu ere, gure amonek aitari edo senarrari baimena eskatu behar zioten kirol lizentzia ateratzeko. Zorionez, gure gizarteak aurrera

egin du eta emakumeak pertsona heldu eta autonomoak gara legalki, eta norbere erabakiak hartzeko eskubidea dugu. Esan behar da lorpen horiek batik bat emakumeen lanari eta aldarrikapenei esker etorri direla. Eta, hain zuzen, horixe da aurrerapausoak egiteko gakoa, baita kirol arloan ere.

Kirolean emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko, indarrean dagoen legedia betetzeaz gain, ezinbestekoa da emakumeek erabakiak hartzeko organoetan parte hartzea.

**EMAKUMEEK AUKERA TXIKIAGOA IZAN DUTE BERAIEI JARDUERA GARATZEKO**

Tradizioz gizonek, kooptazioaren eta sare informalen bitartez – nazioarteko ikerketetan “Old boys’ networks” bezala ezagutzen diren prozesuak–, emakumeak botere guneetatik at utzi dituzte; eta horrek eragina izan du historian zehar kirolean emakumeei esleitutako baliabideetan, kopuruan zein kalitatean. Ondorioz, Emakumeek aukera txikiagoa izan dute beraien jarduera garatzeko. Egoera hori bereziki nabarmena izan da gizonezkoen eremutat hartu diren kirolean, hain zuzen: arrauna, futbola, pilota eta txirrindularitza.

Alabaina, une historikoa bizitzen ari gara. Emakume arraunlariek ETE elkarte sortu zuten; emakume pilotariek EPE sortu berri dute. Azken hori,

HAUXE BAI JENEROA!





## ERREMATEA



IOSU ALBERDI

## Zer pentsatu

**H**edabideek ez dute arrakasta gehiegi jendeari zer pentsatu behar duen adierazteko garaian, bai, ordea, eta asko, euren entzuleriari zertaz pentsatu behar duen esateko orduan". Hala adierazi zuen Bernard Cohen historialariak, *The press and foreign policy* liburuan, hedabideek gizartearen iritzi publikoan duten eragina aztertzerakoan.

Halere, gaia finkatzetik haratago, agerikoa da komunikabideek iritzi ildoak finkatzeko duten boterea; gobernuak kolokan jartzeko edo gizarte mobilizazioak kriminalizatzeke. Hartzaileok, askotan, iragazkirik gabe jasotzen dugu informazio hori guztia, egia osoa bertan egongo bailitzan; aukeratutako argudio eta hitz bakoitzaren atzean zer egon daitekeen pentsatu gabe. Estatu kolpe ala askatasunaren aldeko protesta? Legearen aplikazio ala onura?

Bakoitzaren erabilera ez da ausazko kontua, baina begi eta belarrietatik sartu eta askotan halaxe geratzen dira gure barnean. Horren aurrean, irakurle/entzule/ikusle orok kritiko izateko betebeharra du.

Halako zerbait adierazi zuen afroamerikarren eskubideen aldeko ekintzaile Malcolm X-k: "Adi ez bazabiltza, komunikabideek zapalduak gorrotarazi eta zapaltzaileak maitaraziko dizkizute". Ez du gaurkotasunik galdu. ■

gainera, erakunde guztiz autonomoa, haien jardueraren baldintzak ezartzeko eta erabakiak hartzeko sortua; eta, nola ez, neska txikien artean pilota sustatzeko eta haiei ereduak eskaintzeko ere bai. Emakumezkoen futbolaren iraultza datorkigu, nahiz eta epe laburrean ikustear dagoen zenbat emakumek parte hartzen duten haien hitzarmen kolektiboaren negoziaketan. Eta lehendik ere hamaika adibide ikusi ditugu, hala nola, emakume kirolariak, Emakumea Surflari, Emakumea Piraguista, Emarri, Neskalatzaileak, etab.

Proiektu horien guztien arrakastaren oinarrian jabetasunaren prozesuak daude, hots, emakumeak egoeraz kontziente izatea, berau hobetzeko indarra eta gogo

garatzea, eta haien arteko elkarlan sareak sortzea. Eta ondorioak handiak izango dira; izan ere, behingoz emakume kirolariak beraiek ari dira aldarriak egiten; norbere esperientzian zer ikusia duten erabakietan parte hartu nahi dute, eta ez daude prest baliabideen banaketan desberdintasun egoerak onartzeko. Horrek guztiak hautsak harrotzen ditu, orain arte pribilegioak izan dituztenek eskuak zabaldu beharko dituztelako eta atzerapauso bat eman aliatu moduan lan egiteko. Dena den, argi dago garai berri batean gaudela eta, oztopoak oztopo, emakumeek ez dutela baimena eskatuko kirol arloan parte hartzeko, ezta haien jarduerari buruzko erabakiak hartzeko ere. ■

IZNAHI

PERO  
QUE POCA  
CULTURA  
EMOCRATICA,  
¡HOMBRE!



# PUBLIZITATEA



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943-86 23 09



**diseinua inprimatzea**

Alai 8, 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20  
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t g



**Agurtzane Okindegia**

Erribera 2 • 943-86 21 52

SAVALERO



**AIZPURUA LIBRURU DENDA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943-86 15 69



**AL-ANON**

Alkoholikoek seride eta lagunen elkartea  
Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazketan, 20:00-22:00  
larunbatetan, 19:00-21:00



**ALBERDI dekorazioa**

- Eskaiola
- Pladur-a

696 72 61 88  
943-14 32 61



**Amama taberna**


Tel.: 943-54 31 64  
amamataberna@gmail.com  
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)



**Ardantzabide ALTZARIAK-AROZTEGIA**

www.ardantzabide.com f

Denda: Txomin Agirre, 4 Tel.: 943-86 25 32  
Aroztegia: Santiago, 40 Tel.: 943-86 16 31



**OKANDEGIA Arkupe**

Nagusia 2 • tel. 943-86 16 21  
ZUMAJA

COI-EDER



**Arruti ARROPA BENDA**

ANGELES SORAZU 1 BEHEA  
943-54 34 06  
20790 ZUMAJA (GIPUZKOA)



**ATARI TABERNA**

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



**BOSCH Service** Bosch Car Service

**Autos Zumaia**

Gasolina injezioa  
Diesel injezioa  
Elektrizitatea/Elektronika  
Piztea

Balaztak, ABS, ESP  
Mantentze mekanika  
Motorraren mekanika  
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85  
autoszumaia@bosch-bcs.com



**Azkue**

www.ricardoazkue.com  
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51  
elena@ricardoazkue.com fax. 943-86 27 48



943-86 02 75  
697 81 24 92  
batzokizumaia@gmail.com  
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6  
Zumaia (Gipuzkoa)

**bai bilea**  
Taberna • Jatetxea  
Bar • Restaurante

f t g  
tripadvisor



Finak, frantses, euskara, anglés, espagnol, catalán, suomi, basu, català, frantses, italiar, ingeles, catalán, frantses, espagnol, frantses, ingeles, baski, catalán

**BAKUN**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943-14 83 06  
20749 Arroa bakun@euskalnet.net



**Basodi albaitaritzza**

filbaitaria Itaki Garmendia

Basodi, 7, behea - tel. 943-14 33 10  
veterinaria@basodoinivet.com  
www.basodoinivet.com

Geluz: 11-13 / Arriatsalaz: 16-18.30 / Astelehen goizean eta larunbatean itxia  
Larriak/leharako: 605 72 87 07 Etxez ebeko zerbitzua



**BEHEKO PLAZA**  
taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943-86 17 00



# Arranplan jaio eta botez bote 50 urte

Mende erdia bete du eskubaloiak Zumaian. 50 urte lehen taldea sortu zenetik. Club Deportivo Zumaia-Bombas Azcue izena hartu zuen lehen talde hark, eta ordutik hona erabat errotu da kirola herrian. Horren adibide garbia da azken denboraldian 18 talde izan dituela Pulpo Eskubaloi Klubak. Datorrenari begira bi gehiago izan ditzake, gainera.

**J**okatzeko modua edo teknika ez ezik, materiala (kotoizko manga luzeko kamisetekin eta larruzko baloi gogorrekin jokatzeko zuten lehen) eta entrenatzeko eta partidak jokatzeko eremua ere zeharo ezberdina da orain. Arranplan, orduko Amaia Hotelaren aurrean, jokatzeko zuten hasieran. Entrenatu, berriz, Odieta frontoian. Gaur egun, jokatu zein entrenatu, Lubaki kiroldegian egiten dute. Halaber, esan beharra dago, herrian gero eta eskubaloi talde gehiago izanik, espazio berrietara jo behar izaten dutela sarritan. Herri Eskolako gimnasia, esaterako. Arranplatik kiroldegirako trantsizio horretan, Maria eta Jose Ikastetxeko (gaur egun Zumaiena ikastetxea) jolastokitik igaro ziren aurretik. Ikastetxean bertan jokatu eta entrenatzen ziren.

Zumaian eskubaloien hastapenetan, Clamades Blanco izan zen lehen taldeko entrenatzailea. Ramon Gurrutxaga, Acisclo Alberdi, Segundo Manterola, Jesus Mari Zaldunbide *Ondarru*, Juan Ramon Zearreta, Juan Mari Argoitia, Jose Angel Ansoalde, Ramon Izaga *Frantzez*, Jose Antonio Etxabe eta Santi Alkorta izan ziren jokalariaik. Haietako batzuekin bildu ondoren, lehen talde hura nola osatu zuten azaldu digute. Ramon Gurrutxagaren esanetan, Miguel Aguado eta Manolo Bernal animatu ziren taldea sortzera. Jende bila hasi ziren eta Clamades Blanco batu zitzairen, eta haren atzetik gehiago. Hasierako entrenamenduetan jokalaria gutxi ziren, baina

Testua: **Jabi Gonzalez Toston**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta Pulpo eskubaloi taldea**.



Hasierako urteetan aritutako jokalaririk.

Espainiako txapelketa irabazi zuen emakumezkoen taldea. JABI GONZALEZ

TOSTON

zegoen. Horretarako ezinbestekoa zen kirol elkarte baten izenean aritzea. Bi aukera zituzten, beraz: beraien elkarte sortzea edo ordurako bazegoen batera batzea. Zumaian kirol elkarte bakarra zegoen orduan: Club Deportivo Zumaia. Izatez, pilota elkarte zen, baina haiekin hitz egin ondoren, eskubaloi taldea haien izenean atera zuten. Babeslea ere berehala lortu zuten: Bombas Azcue. Horrek, materialaz gain, jokalarien fitxak ere ordaindu zituen. Bidaien gastua, aldiz, jokalarien esku geratu zen.

Partida jokatu aurreko prestaketak nola egiten zituzten ere kontatu digute. Igande eguerdietan jokatzeko zuten, baina goizean elkarte behar izaten zuten lehenik joko eremua finkatzeko, lerroak markatu eta porteriak jartzeko. Horrez gain, Arranplan ziren bi garabietara igotzen ziren bertatik sareak zintzilikatzen. Partida hasterako zizko eginda egoten ziren. Sareak jarri arren, baloiak

pixkanaka jendea batu eta taldea osatzea lortu zuten. Ramon Gurrutxaga bera izan zen batu zenetako bat: “Orduan nik Zarautzen jokatzeko nuen, baina Zumaian gero eta jende gehiago elkartu zela ikusita, herriko taldera mugitu nintzen”. Miguel Aguadok eta Manolo Bernalek jokalaria bila aritu eta lehen entrenamenduetan parte hartu zuten, baina hilabete gutxira utzi zuten taldea, partidarik jokatu gabe.

Segundo Manterolak ere gogoan du bera nola hasi zen eskubaloiari. Kuadrillako lagunekin pote batzuk hartzen ari zela, frontoian sartu eta baloi hotsak entzun zituen. Zalaparta hura zer zen ikustera gerturatu, eta begien aurrean zuenak nola harritu zuen kontatu digu: “Hiru lagun ikusi nituen baloiarekin jolasean, frontisean zegoen ate batera ari ziren baloia jaurtitzeko, oso gertutik. Ziztu bizian ateratzen zen baloia, eta ate azpian zegoen atezaina zoraturata zegoela pentsatu nuen. Halere, ikusitakoak erakarri ninduen, eta handik gutxira hasi nintzen neu ere entrenatzen. Atezain amaitu nuen...”.

Behin taldea osatuta, lehiatu ahal izateko federatu beharra



berdin-berdin egiten zien ihes eta erriean amaitzen zuten. Baina bazuten konponbidea horretarako ere: salabardo luze batzuk zituzten prest baloia ahalik eta azkarren uretatik ateratzeko. Balo bustiarekin jokatzeko ez zen arazoa; ohituta zeuden. Izan ere, askotan jokatu behar izaten zuten euripean. Norgehiagoka amaituta, bertaratutako zaleei diru kutxa pasatzen zieten epaileari ordaindu ahal izateko. Jarraian, guztia desmuntatzen zuten. Partidaren prestaketa goizeko bederatzietan hasi eta arratsaldeko ordu biak aldera amaitzen zela gogoratzen du Juan Ramon Zearretak.

Lehen taldea jende gutxiarekin hasi zuten; urtetik urtera, ordea, gero eta kide gehiago batu zitzaizkien. Berritasunak bultzatuta, Arranplako partidak ikustera jende andana gerturatzen zen, baita entrenamenduak ikustera ere. Gehienek ez zituzten arauak ezagutzen, ordea. Acisclo Alberdik jendeak “¡fuera de juego!” oihukatzen zuela dio.

### **Lehen talde jubenila eta Pulpo**

Lehen urteetako jokalaria talde seniorrean aritu ziren. Gazteak ere berehala animatu ziren eta 1971. urterako jubenil mailako lehen taldea atera zuten Club Deportivo Zumaiaren izenean. Seniorren taldea pixkanaka desegin zen bitartean (jokarietako batzuek soldadutzara joan behar izan zutelako), jubenilen taldeak aurrera jarraitu zen 1974an Pulpo agertu zen arte.

Bombas Urpe babesle zuela sortu zen Pulporen lehen talde hura, jubenil mailan. Senior taldea ez zen 1981ra arte iritsiko. Baina, hori bai, Pulpoko gizonezkoen lehen talde seniorra sortu zenetik hona ez da hutsunerik izan; urtero izan da talde bat gutxienez. Harrobiko taldeak ere ugari izan dira maila ezberdinetan, baita emakumezkoenak ere.

### **Emakumezkoen lehen taldea**

Pulporen seniorren taldea sortu baino zertxobait lehentxeago sortu zen emakumezkoena, kadete mailakoa, 1979an. Lehen talde hura osatu zuten neska urte batzuk lehenago hasi ziren eskubaloian jokatzen irakasle batek animatuta, 1976an, 12 urte zituztenean. Marian Egañak dio Maribi izeneko soinketa irakasleak sartu ziela eskubaloiarekiko grina. Hark irakatsi zizkien arauak. Betidanik neska mugituak izan zirenez, txikitatik baloiarekin jolasean ibiliak, berehala egokitu ziren ikasitako kirol berrira.

Hasieran talde gutxi zituzten inguruan eta urtean pare bat partida jokatzeke aukera besterik ez zuten. Eskolen artean izaten ziren partidak eta Zarautz zen aurkari ohikoena. 14 urte zituztela, Maria



Eskubaloiko taldearen sortzaileak.



Pulporen lehen emakumezko taldea.

Emakumezkoen taldea Bartzelonan.

eta Josen ikasketak bukatuta, Zumaian ikasketekin jarraitzeko aukerarik ez zegoenez, kanpora joan ziren gehienak. Neskek, ordea, ez zioten eskubaloian jokatzeari utzi nahi izan. Beraz, elkartu eta taldea osatzea erabaki zuten. Gauzak horrela, Pulpori laguntza eskatu zioten haien izenean federatuta jokatu ahal izateko. Baiezkoa jasota, entrenatzaile bila hasi ziren. Mitxel Manterola eta Karmelo Alberdi hartu zuten ardura. Lagundu zieten Jose Luis Alberdi eta beti neskek animatzen ibili zen Jose Angel Alkorta ere gogoratzen dituzte. Taldea osatuta eta entrenatzaileak lotuta zituzten; materiala behar zuten. Hura

lortzeko orduko Taosa diskotekara joan ziren. Jabeekin hitz eginda, sarrerak saldu eta diru hori taldearentzat izatea adostu zuten; ordainetan, diskotekako jabeak barran ateratako diruarekin geratuko ziren. Diru horrekin, kamisetak eta baloi bat erosi zuten. Kamisetak urdinak eta beso luzekoak ziren; galtzak, berriz, klubak berak emandako mutilen galtza zaharrak. Baloia zen altxorra, zalantza izpirik gabe.

Federatuta jokatu zuten bigarren denboraldian heldu zen Pulpoko lehen emakumezko taldearen arrakasta. Espainiako txapeldun izan ziren Zaragozan. Donostian jokatu zuten sektorea gaindituta sailkatu ziren. Ana Yeregik ongi oroitzen du Madrilen aurkako azken partida erabakigarria: "8-8 berdindu genuen, baina aurretik jokaturako Bartzelona eta Sevillaren aurkako bi partidak irabazi genituenez, gol

bakarraren aldegatik izan ginen gu txapeldunak". Kontxi Aizpurua, Arritxu Unanue, Maite Agirrezabalaga, Marian Egaña, Ana Yeregi, Ana Delia Mendizabal, Marilu Esnal, Maria Jesus Elzo, Marijo Aizpurua, Miki Gutierrez eta Pauli Elosuak osatu zuten talde txapeldun hura. Ana Egaña urtebete zaharra goa zen, eta, beraz, ezin izan zen kadete mailan aritu. Dena den, taldeko delegatu modura aritu zen.

Zaragozakoa ez zen talde hark egin zuen bidaia bakarra izan; jubencil mailan Sabadellen jokatu zuten sektorea, baina orduan ez zuten hurrengo fasera sailkatzerik izan. Horren ondoren desagertu zen taldea, jokalariai Zumaia kanpora atera behar izan zutelako unibertsitateko ikasketak egitera. Ikasketak amaitutakoan berriro



bildu ziren senior mailan urte gutxi batzuk egiteko.

**Aro Modernoa**

Egun Pulpok ez du emakumezko senior talderik. Hutsune hori izan du klubak azken bi denboraldietan. Gainerako maila guztietan emakumezkoen zein gizonezkoen talde bana du, gutxienez. Hutsune hori bete nahian jokalaria batzuk animatu dira taldea osatzera, baina momentuz ez dute taldea osatzeko adina jokalaria.


Ainhoa Larrañaga atezainak jubenil mailako azken denboraldia du datorrena. Etorkizun oparoa du hondartzako eskubaloiko Espainiakoa selekzioarekin Europako txapelketa irabazi ondoren. Tamalez, Zumaiatik kanpo izango da, seguruenik. Baina herrian senior mailako taldea egotea gustatuko litzaioke, etxean geratzeko aukera izango lukeelako. Izan ere, gauza politak bizi izan ditu Larrañagak Pulporekin. Betiko lagunekin, infantil mailan, Euskadiko txapelketa irabazi zutenekoa, esaterako. Oroitzapenen artean, 2015ean jubenil mutilek jokatu zuten Espainiako Txapelketa ere ondo gordeta du Ainhoa Larrañagak. Jokatu ez arren, eskubaloiak emandako bizipen zoriontsuenetako bat dela aitortzen du.

Iñigo Garaizabalek ezin hobeto gogoratzen du aste magiko hura. Sekula ahaztuko ez duela dio. Taldeko kapitaina zen, eta jokatzeko berezia izan bazen ere, herrian izan zen giroa da gorai patzen duena,



Senior mailako taldea 80ko hamarkada hasieran.

Senior mailako taldea.






herritarren artean ikusi zuen jarrera: "Jendea sarrera hartu ahal izateko ilara egiten goizean goiz, kiroldegia kamiseta gorritz beteta..."

Hurrengo bi denboraldietan ezagutu zuen txanponaren beste aurpegia Garaizabalek. Senior mailan egin zituen lehen bi denboraldietan, bi maila jarraian galdu zituen klubak. Lehen jaitsiera bereziki mingarria izan zen, gainera. Taldeak ez zuen puntu bakar bat ere lortu eta 1999. urtean eskuratutako Estatuko lehen maila nazionala galdu zuen. Arkaitz Manterola atezainak, hain zuzen ere, maila igoera hartan hartu zuen parte. Oraindik amaitu ez duen ibilbidean zehar izan duen momentu berezietako bat dela dio. 31 urte egin ditu Pulpon, maila guztietatik igarota, klubeko jokalaria beteranoena da. Jokatzan jarraitzeko asmoa du, belaunak uzten dion bitartean, behintzat. Horrelako pasioa duten jokalariekin, etorkizuna ziurtatuta du eskubaloiak Zumaiian, mendeurrena ospatzeko bidean.

### Zumaiako lehen eskubaloi jokalaria "profesionala"

Juan Mari Artetxe (Zumaia, 1942) 15 edo 16 urterekin hasi zen eskubaloian jokatzen, Donostiako Sagrado Corazon Mundaiz ikastetxean. Espainiako txapelketa irabazi zuen ikastetxeko taldearekin, jubenil mailan. Handik, ohorezko mailako Amaika Bat talde donostiarrera pasa zen, eta, soldadutza egiten ari zela, Domingo Barcnas Espainiako selekzioko hautatzailearen deia jaso zuen. Selektzioaren nazioarteko hainbat txapelketa jokatzeaz gain, Madrilgo Kirol Jauregia inauguratu zuen, besteak beste. Soldadutza amaituta, Atletico Madrilen deia jaso zuen, baina eskaintza baztertu eta aparejadoreen ikasketak egin zituen Burgosen. Bertan, aparejadoreen eskubaloi txapelketan hartu zuen parte.



Juan Mari Artetxe.

Ikasketak amaituta, etxera itzuli eta Donostiako taldeetan jarraitu zuen eskubaloian jokatzen. Herrian lehen taldea sortu zenean, entrenamenduetan lagundu zuen hasieran, jokalaria berriei irakasten. Taldeak aurrera egin ahala, mailaz igo eta bera ere animatu zen partidak jokatzerara. 30 urterekin, ezkondu baino zertxobait lehenago, hartu zuen erretiroa. ■■■

**CLAMADES BLANCO  
IZAN ZEN ZUMAIKO  
LEHEN ESKUBALOI  
TALDEKO  
ENTRENATZAILEA**

**BIGARREN  
DENBORALDIAN HELDU  
ZEN EMAKUMEZKOEN  
LEHEN TALDEAREN  
ARRAKASTA**



Jon Kareaga familiak San Telmo kalean duen hotelean.

# "Bizitza dedikatu nahi diet ingurumenean eragin positiboa duten proiektuei"

**JON KAREAGA** EKINTZAILEA

LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduko hirugarren maila bukatu berri du Jon Kareaga gazteak. Testua: **Izaskun Urbieta Esnal**. Argazkiak: **Jon Kareaga eta Arnaitz Rubio Aprea**.

Ingurumenarekiko eta animaliekiko duen atxikimendua eta maitasuna handia izaki, biologia ikasketak egitea ere pentsatu zuen hasieran, baina proiektuak garatzea ere gustuko duenez, gradu horrek ematen dituen ezagutzak jasotzea aukeratu zuen azkenean. “Nire balioak eta filosofia aurrera eramaten duen enpresa bat sortzen ikusten naiz”, nabarmendu du. Dagoeneko Bask proiektua martxan jarri du, eta horren baitan, Asiako hiru herrialdetan grabatu duen *Made in, Made for* dokumentala egin du; moda industriak ingurumenean eta pertsonengan duen eragina azaltzen duen film luzea.

### **Graduaren helburu nagusietako bat proiektu batzuk aurrera ateratzea da.**

Ikasketa hauetan egiten duzun lehen gauza zeure burua ezagutzea da. Proiektuak egin behar dira, eta, horretarako, jakin behar duzu zer nahi duzun lortu eta zer duzun gustuko. Nire kasuan, argi dut bizitza dedikatu nahi diodala ingurumenean eta gizartean eragin positiboa sortzen duen proiektu bati. Hain zuzen, asmo horrekin jarri nuen martxan Bask arropa marka, ulertzen dudalako modak zeresan handia duela ingurumenean eta gizartean inpaktu positiboa lortzeko.

### **Zuri, ordea, moda kontzeptua ez zaizu askorik gustatzen.**

Konturatu naiz modak eragin negatiboa sortu duela gizartean, baina, era berean, argi eta garbi ikusi dut gauzak aldatzeko indar handia duela. Moda gizartearen motor bezala erabiltzen dugu; orain arte modu negatiboan, adibidez, Bangladesh bezalako herrialdeetan. Goazen, beraz, gauzak era positiboan eraldatzera, eta herrialdeak eta bertako komunitateak ahalduntzera.

### **Bask izeneko arropa marka sortu duzu.**

### **Ingurumenarekiko duzun kontzientziak eta sentsibilitatea aintzat hartuta, jasangarriak izatea da arropa horien bereizgarria?**

Jasangarria hitza bera oso modan dago, eta Zara eta H&M dende, esaterako, jasangarria deitzen dioten arropa dute salgai beraien web orrialdeetan. Norberak definitu behar du zer den jasangarria, eta guk jasangarritzat definitzen dugu gizartean inpaktu positiboa (ekonomikoa, soziala eta ingurumenarekikoa) sortzen duenean. Zergatik? Proiektu batzuk askotan ingurumenarekiko jasangarriak direlako, baina ez maila sozialean. Bask markak, adibidez, material birziklatuak erabiltzen ditu. Irunen produzitzen



Kareaga, Indiara egindako bidaia batean.



Emakumeak dira jostun gehienak.

da; beraz, geuk ziurtatzen dugu produkzio kate guztia, eta, horrenbestez, lan baldintza onak dituztela.

### **Gizartean eraldaketa lantzeko, baina, uste duzu komunitate oso baten atxikimendua behar dela.**

Hala da. Orain arte proiektu hau lantzen bi pertsona izan gara, baina mundua aldatu nahi badugu, uste dugu bakarrik ezin dugula. Ikusten dugu komunitate baten beharra daukagula, eta horregatik ekintza ezberdinak egin nahi ditugu: zabor bilketak, ekitaldiak, hitzaldiak, aktibismoa bultzatu...

### **Zer lanketa dakar horrek guztiak?**

Edozein proiektu gauzatzeko ausardia izan behar duzu eta edozein pertsonarekin hitz egiteko beldurrik ez izan. Graduan hainbat bidaia egin ditugu herrialde eta errealitate ezberdinetara. Horien helburua izan da proiektu batzuk bertan garatzea, bezero mota ezberdinak ezagutzea... Finlandian egon naiz, adibidez, eta aukera izan dut bertako hezkuntza metodologia ikasteko. Gero, San Frantziskora joan nintzen eta Apple edo Google bezalako enpresen barne kultura ezagutu nuen. Amaitzeko, Indian eta Txinan izan nintzen, eta han beste errealitate bat aurkitu nuen. Indian ikasi nuen ditugun gauzak baloratzen, eta Txinan, berriz, zer azkar mugitzen den gizartea eta zenbat lan egiten duten.



**Ekintzaileentzat Asia al da aukera gehien dituen kontinentea?**

Oso ezberdina da. Zure proiektuekin inpaktu globala lortu nahi baduzu, beste herrialde batzuk ezagutu eta horien funtzionamendua jakin behar duzu. Indiak gaitasun batzuk sortu dizkit, esaterako, errespetua, begirunea... Bidaia horiek egiteak eta ordena horretan zentzu bat du: Finlandian, metodologia; San Frantziskon, enpresak; Indian, zeure buruaren ezagutza eta boluntariotza; eta, Txinan, merkaturak. Ekintzaile bezala, esan behar dut Asian aukera asko daudela, baina baita European ere. Are gehiago: uste dut zailagoa dela ekintzaile izatea Asiako herrialdeetan.

**Made in, Made for dokumentala, hain zuzen, Asian grabatu duzu.**

Indiako eta Txinako egonaldietako proiektua izan da. Gabonetan Aldundiari eman nion nire proiektuaren berri eta finantzazioa lortzeko eskaera egin nuen. Dokumentalaren helburua izan da erakustea gure kontsumo ez jasangarriak nolako inpaktua daukan pertsonengan, baita gizartean ere.

Duela urtebete Bask proiektua sortu nuenetik, gero eta kontzienteagoa naiz modak sortzen duen eragin negatiboan eta hori ikusteko joan nahi nuen Asiar. Ekiñe Eizagirrek lagundu zidan dokumentalerako protagonistak bilatzen, elkarrizketak egiten, leku klabeak identifikatzen... Dokumentala ikuspuntu ezberdinekin osatzeko Euskal Herrian ere egin genituen elkarrizketak. Horretan, Uxue del Rio eta Nuria Robleño izan nituen laguntzaile.

**Nolakoa izan zen dokumentala grabatzeko prozesua?**

Nahiko denbora laburrean egin dut guztia. Familiarekin Vietnamen izan nintzen Gabonetan eta handik Kanbodiara joan nintzen bakarrik. Han nengoela jaso nuen Aldundiaren baiezkkoa; aipatu zidatenez, ingurumen saileko estrategietako batean kokatzen dute moda industria.

Indiara iritsi nintzenean, nire ikaskideekin harremanetan jarri nintzen eta dokumentala prestatzen hasi ginen. Prozesu zaila izan zen, jendearen ezezko asko jaso genituelako. Beldur handia dute bizitzen duten errealitatea kontatu eta aurpegia emateko. Azkenean, moda industria oso handia da han. Eragin negatiboa grabatzera joan ginen eta ez zigun inork hango errealitatea erakutsi nahi.

**Ezina ekinez lortzen da, eta azkenean zerbait lortu zenuten.**



Asian ekoizten da moda enpresa garrantzitsuenen arropa.



Kareagak bertatik bertara ikusi ahal izan dituen auzoetako bat.

Tiruppur izeneko herrixka batera joan ginen. Han modari lotutako enpresa asko daude: Primark, Zara, Kiabi... Horietan sartzeko gezur asko esan



Bidaietan jende oso jatorra topatu duela dio Kareagak.

**"INDIAK GAITASUN BATZUK SORTU DIZKIT, ESATERAKO, ERRESPETUA, BEGIRUNEA..."**

**"PROZESU ZAILA IZAN ZEN, JENDEAREN EZEZKO ASKO JASO GENITUELAKO"**

**"GURE KONTSUMO EREDUEK BABESTEN DUTE NOLAKO ENPRESAK NAHI DITUGUN IZAN ETORKIZUNEAN"**

behar izan genituen, esaterako, moda industriak ekarri duen lana eta aberastasuna grabatzera joan ginela. Hala ere, kamerarik gabe erakutsi ziguten.

#### **Zer ikusi zenuten?**

Espero genuena: jendez betetako lerroak eta lerroak lanean. Orduan gauza batez konturatu ginen. Industria horrek sortzen duen eragin negatiboa ez dela gertatzen bakarrik lantegietan, hortik kanpo ere zabaltzen dela. Lan baldintza kaxkarrak izateaz gain, ez dute aisialdirako denborarik, etxebizitza duinik ere ez dute... Lan horietan gehienak emakumeak dira, umeak ere badaude eta egunero 2,50 euro irabazten dute, gutxi gorabehera.

#### **India, Txina eta Bangladeshen ere grabatu zenuten.**

Bangladeshera bakarrik joan nintzen eta nahiko beldurtuta. Harremanak eta kontaktuak bakarrik lortu behar izan nituen. Hiru egun egon nintzen, eta egon nintzen denbora gutxirako erraza izan zen enpresetan sartzea. Askoz ere azalpen gutxiago eman behar izan nituen.

#### **Zer ikusiko dute ikus-entzuleek dokumentalean?**

Film luzeak kontaktzen du Asiara dokumental bat grabatzera doan mutil baten istorioa. Bere asmoa da modak ingurumenean eta pertsonengan duen inpaktua grabatzea. Dokumentala Bangladesheko Rana Plaza izeneko eraikina egon zen lekuan hasten da. 2013ko apirilaren 24an eraikin hori erori egin zen eta 1.135 pertsona hil eta 2.500 zauritu ziren. Erori baino lehen, langileak kexu ziren eraikinaren egoera txarraz eta ez zuten lanera joan nahi, baina... Hortik dator *Fashion Revolution* kontzeptuaren jaiotza, hau da, zer ari gara kontsumitzen? Zer enpresa ari gara bultzatzen? Dokumentala hor hasten da eta mutilak arropa bat egiteko prozesua ikusi nahi du. Horregatik, kotoi fabrikak ikusten hasten da, tindatzekoak geroago, baita josteko lekuak ere.

#### **Kamiseta bat nola egiten den ikusten duenean zer gertatzen da?**

Konturatzen da langileen baldintza horiek sistemaren arazo baten ondorio direla, eta horretan ardura dutela bai Gobernuak, bai markak, bai kontsumitzaileak. Dokumentalaren beste helburuetako bat da, jendea ohartzea kontsumitzaile gisa zenbateko eragina izan dezakegun industria hori aldatzeko. Erabaki bakoitzak definitzen du etorkizuna; gure kontsumo ereduek definituko dituzte etorkizuneko enpresak nahi ditugun izan etorkizunean. Guk aldatu behar dugu, gero enpresak eta Gobernuak aldatzeko.

**Nolako esperientzia izan da hori guztia egitea?**

Izugarria, eta aitortu behar dut beldurra ere pasa dudala. Eskerrak eman nahi dizkiet gurasoei, Diputazioari eta taldeari. Dokumentalean parte hartzen duten protagonistei ere bai, oso jende jatorra topatu dut. Lan horrek nire filosofia berresten lagundu dit. *Fast fashion* kontzeptuaren aurka nago; zerbait erosi eta bi aldiz erabiltza botatzea. Prenda horrek ez du baliorik.

**Dokumentala maiatzean estreinatu zenuen Donostian San Sebastian Moda egitasmoaren barruan.**

Tabakaleran egin genuen ekitaldia. Berezia izan zen; izan ere, dokumentala eman aurretik Espainiako *Fashion Revolution*eko arduraduna etorri zen hitzaldi bat ematera. Jendeak harrera ona egin zion dokumentalari. Edizioan akats batzuk egon ziren, baina jendeak ongi harrapatu zuen ideia.

**Orain, dokumentala hobetu eta beste toki batzuetan erakusteko asmoa duzu.**

Jaso genuen *feedback*etik hobetu nahi dugu, baita finantzazioa lortu ere. Horrela, lortutako diruarekin Indian edo Bangladeshen tailer sozial bat egiteko helburua dugu. Noski, ingurumena




Gizarteko arlo askotan lan egin behar dela dio Kareagak.

zaindu behar dugu, baita bertako ekonomia ere, baina lan horietan dabilzan pertsonak soluzioak behar dituzte. Hala, proiektu hori martxan jartzeko donazio kanpaina abiatuko dugu eta iraila edo urria hara joatea aurreikusten dugu. Bitartean, besteak beste, Bilbon, Bartzelonan eta Madrilen dokumentala erakutsi eta ekitaldiak egiteko asmoa dugu. Zumaian, esaterako, uztailearen 4an Kontzientziazio eguna antolatu genuen. ■

# Georges Lakhovsky

Minbizia eta bizitzaren sekretua



Era askotako uhinen oskilagailua

Tomas: 638 18 09 96 · [tomasetxabel.wordpress.com](http://tomasetxabel.wordpress.com)



# Plaza bermatzen duena, plazara

Miriam Romatet, kulturaren talaiatik herriari begira

30 urte egin ditu Miriam Romatetek Zumaiako Udaleko kultur teknikari lanetan. Herriko kultur programa osatzen eta udal baliabideak kudeatzen aritzen da, herritarrekin, sortzaileekin eta politikariekin etengabeko harremanean. Ofizioaren eta Zumaiako kultur eskaintzaren inguruan aritu da *Baleikerekin*. .

Testua: **Julen Aperribai**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

**H**erriko kultur eragileen, sortzaileen eta Udalaren artean bada espazio bat bete beharrekoa, kultur agenda iraunkor eta partekatua izan nahi bada. Udaleko Kultura sailak betetzen du espazio hori, eta kultur ekitaldien antolakuntza eta horretara bideratutako espazioen eta baliabideen kudeaketa ditu bere lanaren ardatz nagusiak; ez dira bakarrak ordea, bestelako eginbeharrak ere izaten baitira, Kultura sailak Alondegian duen bulegoan kudeatu beharrekoak. “Hemen jende pila bat ibiltzen da”, dio Miriam Romatetek, bulegoari begira. Hark jarri ohi dio sailari aurpegia, Zumaiako Udaleko kultur teknikaria baita. 30 urte daramatza hala izaten.

“Gehiegi pentsatu gabe” hasi zen lanbidean, aitortu duenez: “Irakasle ikasketak egin nituen, eta, gutxira, kultur suspertzzailearen lanpostua atera zen Zumaiari. Orduan irakaskuntzan nuen burua, baina aurkeztu egin nintzen eta hala hasi nintzen. Akorduan dut sanpedroen bueltan zela. Pirinioetara joaten ginen garai hartan Inda Mendi elkartearekin, eta apunteak hartuta joan nintzen urte hartan. Ez nituen zabaldu ere egin, noski”. Ordurako aritua zen herriko kultur elkarteei

laguntzen. “Sarrerak saltzen, kartelak egiten eta halakoetan aritzen ginen, behar zenean. Nik uste dut horretan zerikusi handia izan zuela Ikastolak eta bertan lan egiteko moduak”. Urteroko zinema jaialdiaz eta zine forumaz gain, jaietatik kanpo antolaturiko kultur ekitaldirik ez zegoen ia orduko Zumaiari. Akiulu lanean gogoratzen du bere burua Romatetek garai hartan, kultur elkarteei laguntza eta proposamenak eskatzen. Inazio Tolosak “herriko eragileak astintzen” egindako lanak erraztu zion bidea, dioenez. Orduan kultur eragileek egindako lana nabarmendu du: “Haien proposamenak dira gaur egun bultzatzen diren asko”.

Programazioa asko zabaldu da orduetik. Diziplina eta espresio bide berriak egonkortu dira Zumaiari, eta kultur eskaintza urte osora hedatu da. “Gehiegizkoa” ere izaten da data jakin batzuetan, Romatetek onartu duenez. Egutegian gorritz markatutako data horien artean daude herriko jaiak, eta horien antolakuntza lan mardula izaten da Kultura sailean. Izan ere, beste herri batzuetan ez bezala, Kultura sailaren gain dago lan hori Zumaiari. Romatet: “Denbora eta energia asko kentzen digu jaiak antolatzeak. Nekagarria da, baina, aldi berean, egia da jaien barruan



*irrimarra*



kultur ekitaldiak izaten direla, eta jaien bidez jendearengana iristea errazago dela”.

### **Herritarrak, hurbil**

Etengabeko harremanak ezaugarritzen du kultur teknikariaren lana, izan politikariek, herritarrekin nahiz sortzaileekin. “Koordinazioa izaten da lanaren zati handi bat, bitartekari lana egitea” zehaztu du Romatetek. Herriko eragileek Kultura saila hurbil sentitzen dutela uste du. Hala ere, dioenez, badira Udalak egindako deialdietara joaten ez diren herriko eragileak: “Beti izaten dut kezka, zentzu horretan. Jende batek ihes egiten digu”. Elkarleen eta eragileen arteko elkarlana ere bultzatu izan du Udalak, eta, bultzatu beharrik gabe ere, bide hori egin dute eta egiten dute herriko eragileek gaur egun ere. Adibidetzat jarri du Dardara kolektiboak, Astindu dantza taldeak eta San Pedro abesbatzak datozen gabonetara begira Queen taldearen inguruan prestatzeko asmoa duten ikuskizuna. Harreman pertsonalek eta parte hartzeko mekanismoak eskuragarri jartzeak ahalbidetzen dituzte horrelakoak, Romateten ustez. Horregatik, uste du legealdi berrian Kultur Mahaia eta Musika Mahaia berreskuratu behar litzatekeela.

Halako erabakiak, ordea, politikarien esku izaten dira, normalean. Udal Gobernuaren aldaketak kultur arloan nola eragingo duen ikusteko dago. Edonola ere, udal aldatetara ohituta dago Romatet. “Batzuekin besteekin baino hurbilagoko tratua izan dut, baina nik uste dut, orokorrean, saiatu naizela politikak ez nazan

gehiegi baldintzatu”. Programazioan ez dute politikariek askorik esku hartzen, haren arabera, nahiz eta agenda bere interesaren arabera mugatu izan duenik ere ezagutu duen, hainbeste urtetan.

Erraz pilatzen dira proposamenak Kultura sailaren helbide elektronikoan. “40 bat mezu jaso ditzaket egun bakarrean”, dio Romatetek. Gustukoa du sortzaileekin egotea, nahiz eta onartu nahi adina denbora ezin izaten diola eskaini beti eginkizun horri. Proposamenen zerrenda luzeak hainbat galbahe pasatzen ditu, plazaratu aurretik. Euskarazko jarduerak izaten dute lehentasuna, eta asko laburtu ohi du horrek zerrenda. Bestalde, herriko sortzaileen lanak ikusarazten ahalegintzen dira. Aholkulari lana egin dezaketengana ere jotzen dutela aitortu du Romatetek, alorraren arabera. Programazio “orekatua” osatzen saiatzen direla dio, zentzu guztietan: “Proposamen ausartak ekartzen ditugu,

### **Miriam Romatet**

- **Adina:** 52 urte.
- **Ikasketak:** Irakasle ikasketak.
- **Lanbidea:** Kultur teknikaria.
- **Kultur teknikaria ez banintz...**  
irakaslea.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...**nire lanarekin lotutako gauzak, zoritxarrez. Horrez gain, bidaiatzea asko gustatzen zait. Paseatzea ere bai.





alde batetik, baina baita bestelakoak ere, jendeari iristen errazagoak izango direnak. Zer den irisgarria ere eztabaidagarria da, baina oreka hori mantentzen saiatzen gara”.

Saiatzen dira, era berean, sortzaileen lana baloratzen eta baldintza duinak eskaintzen. Izan ere, haien lanari hertsiki loturiko zerbait izan ohi da prekarietatea. Horren kontziente da Romatet, baina horri aurre egiteko kultura babesteko neurriak behar direla azpimarratu du, udal baten eskumenetik harago daudenak. Baita gizartearen kontzientziarioa ere: “Iturgin baten faktura ez dugu eztabaidatzen, baina, aldiz, astakeria irudituko litzaiguke bost laguneko talde batek 2.000 euro kobratzea kontzertu bat emateagatik”.

### Gazteak, urruti

Bada kultur eskaintzarik Zumaian, eta erreferentzialtasuna ere lortua du herriak alor batzuetan; antzerkigintzan, esaterako. Herrenago ikusten ditu beste diziplina batzuk Romatetek; musika, kasurako. Aldiz, eskaria eskaintza adinakoa ote den ezin da hain erraz baieztatu.

Jende jakin batek beti erantzuten duela uste du Romatetek, baina publikoaren zahartzea kezka iturri da harentzat: “Gazteak kultur jardueretara gerturatzeko zailtasunak ditugu; baita ustez haientzat erakargarriagoak izango direnetara ere, kontzertuetara-eta”. Publikoan ez ezik, joera hori nabari du kultur gintzan jarduten duten eragileetan ere: batzuen zahartzea eta besteen errelebo falta. “Ez dakit den daudenek ez dutelako utzi nahi edo atzetik ez datorrelako inor, baina kezkarria da”, ohartarazi du.

Kulturak herrian duen pisuaren araberakoa izan ohi da, hein batean, bertako herritarren parte hartzearen maila. Kirolarekin alderatuta, esaterako, bigarren mailan nabari du kultura Miriamek. “Nor ez da igaro noizbait kiroldegitik, ikastaro bat egitera edo dena delakoagatik? Eta, aldiz, herri honetan bada jendea oraindik liburutegia zapaldu ez duena. Leku guztietan dago kirola, eta horretara bultzatzen gaituzte”. Udalaren eskumenetik haragoko arazotzat ikusten du hori, ordea, hezkuntzatik eta gizarte moduan erantzun beharreko afera gisa. ■

# BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA  
943-14 34 43  
www.biyona.net ·

SUKALDEAK

Bainugelak

ETXEKO ALTZARIAK

Papel pintatuak

LEIHOAK

Keramika

GREMIOEN KOORDINAZIOA

# BAZKIDE KLUBEKO ZOKKETAK



Ardantzabide: Paula Elosua



On Gourmet: Libe Ormazuri



Zelai talasoterapia: Maitane Urbiet

## UZTAILAK 8

Flysch Surf Eskola:  
bi lagunentzako  
surfeko bataioa edo  
teknifikazioa.

## UZTAILAK 15

On Gourmet: lau  
lagunentzako pizza.

## UZTAILAK 22

Sapere Aude  
Sinfonietaren  
kontzertua: bost  
sarrera bikoitz.

## UZTAILAK 27

Cosa Fina: bi  
kamiseta.

## ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

## DESKONTUAK

**ERTZ INFORMATIKA:** %2ko deskontua.

**ARRUTI MODA:** %5eko deskontua.

**IRUITZ ILEAPAINDEGIA:** Analisi kapilarra doan.

**UKENDU PARAFARMAZIA:** %5eko deskontua.

**EKIN ELEKTRIZITATEA:** %10eko deskontua lanparetan.

**EGOKI BITXIDENDA:** %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

**IRIONDO OPTIKA:** Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

**ENDAÑETA ETXETRESNAK:** %5eko deskontua.

**GOLDEN GATE AKADEMIA:** %20ko matrikulazioan.

**A3:** %5eko deskontua.

**TALAIA:** ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

**ARTAZA KANPINA URBASA:** %10eko deskontua.

**AIZPURUA LIBURUDENDA:** Liburuak %5 merkeago.

**OSKARBI KIROLDENDA:** %5eko deskontua.

**KALARI JATETXEA:** Igandeko afaria %10 merkeago.

**TRAPAIA:** Igandeko bazkariarekin kafea doan.

**KUKITXA:** Erosketak etxera doan.

**PRIMAVERA PIZZERIA:** Pizzak etxera doan.



## ZOZKETAK

**ONURA:** Fisioterapiako lau bono.

**ONGIZAN:** Fisioterapiako lau bono.

**GAINDITUZ:** Lau bono.

**OTEZURI KAFETEGIA:** Bi tarta San Markos.

**MANDALA PAPERTEGIA:** Bost euroko bost bale.

**ITZURUN TABERNA:** Lau lagunentzako afaria hileroko.

**BQD BIDAIAK:** Lau bono.

**ANTZERKIRAKO SARRERAK:** Emanaldi bakoitzeko hiru lagunentzako bina sarrera.

**SANAGUSTIN KULTURGUNEA:** Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

### Bazkide egiteko bideak:


Webgunean: [baleike.eus/bazkidekluba](http://baleike.eus/bazkidekluba)

E-maillez: [administrazioa@baleike.eus](mailto:administrazioa@baleike.eus)

Telefonoz: 943-86 15 45



Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.




## XOMORROAK DOMINOAN

### Itzala

Zein da Maripurtzilen itzal zuzena?

NIK...  
IZAN NAHIKO NUKE...  
SUKALDARI, INGERIARI,  
FUTBOL JOKALARI, DANTZA  
IRAKASLE, YOUTUBER  
ETA AKTORE

ZER  
IZANGO ZARA  
HANDITAN?



## Hamabikoa

Neska-mutilok ikasgelatik atera eta liburutegira doaz sokari helduta...



# Labirintoa

Aurkitu labirintotik ateratzeko bidea, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu, irudiko neskato lotiari oso ongi ematen diona, bide batez esanda. Puntu grisak hitzen arteko tartea irudikatzen du.

JRR...  
ZZZZZZZZ  
GRRRR...  
ZZZZZZZZ  
GRROR

sekuentzia

E	G	I	N	G	O	N	U	K	W	A	S
A	F	O	S	E	T	U	B	E	D	G	Z
E	G	I	N	P	E	I	H	E	D	G	I
A	F	O	S	E	N	S	Q	B	E	H	G
T	U	O	S	E	H	A	N	A	S	U	G
E	D	H	A	E	N	U	A	B	S	G	I
I	O	A	B	Z	B	A	E	Z	E	O	U
B	E	H	U	S	A	B	E	O	E	U	G
I	O	A	B	N	A	L	O	L	G	A	E
A	B	S	U	H	K	E	T	O	B	E	M
B	E	C	U	A	H	L	O	E	A	J	E
R	R	A	U	A	H	L	O	E	R	A	H
R	E	I	E	C	J	L	O	A	U	S	E
B	N	S	J	L	A	O	G	A	U	I	E

Idatzi  
hemen  
esaldia.



...eta hemen, berriz, liburutegitik ikasgelara bueltan datoz. Aurki itzazu bi irudien arteko aldeak. 12 dira guztira.



Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)



**PUBLIZITATEA**

**gARA**  
manufacture

BERTAKO DISEINU ETA EKOIZPENA

• 1989tik sukalde atzariatzen lanean •

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU:  
Olabidea aldea 1 (Errotaberi Industrialea)  
20.800, ZARAUZ 943 13 31 09

www.garay.eus



**BASUSTA**  
erretegia • asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73  
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38  
asadorbasusta@hotmail.com



**EDU**  
ZUMAIKO  
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6  
20750 Zumaia, Gipuzkoa  
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16



**EGOKI**

Eroju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943-86 17 87



**ekin**  
ZUMAIKO, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97  
ekin@ekin.si www.ekin.si

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

**mara** **MÁSMÓV.L**

**ERNTO**  
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



**ERTZ INFORMATIKA**

Portatilen mugikorren  
eta tableten konponkerak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95



**Galdona**  
burdindegia

Mendari marinelra, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46  
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



**Garoa**

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola  
tel. 943-86 21 81  
Txomin Agirre, s/n  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



**GLENCOE**  
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behea  
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



**goiko**  
bodegaia

Erribera, 9 • 943-86 13 91



Ikastegi homologatua

**Golden Gate**  
institute  
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea  
tel./faxa 943-86 50 20  
info@goldengateinstitute.com



**Gure Txokoa**  
aberna

Upela plaza, 4  
20750 Zumaia  
Tel.: 943-86 09 70



**DOIA**

Julio Beobide, 2  
943-57 49 86



**ilarzi**

Alai auzategia, 2  
Tel. 943-24 50 20



**INPERNUPE**  
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23





# Eguzkia bai, baina neurrian!



**ROSA AZKUE**

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Uda garaian murgildurik gaudela, eguzkitan egoteari buruzko gomendio batzuk aipatuko ditut.

Azken hamarkadetan ohitura aldaketa esanguratsua izan da alor honetan, eta esan daiteke “eguzkia hartzea” modan dago. Horrek, nola ez, eragin zuzena du gure osasunean; beraz, beharrezkoa da ohitura osasuntsuak eta babes neurriak sustatzea.

Lehenik eta behin, argi geratu behar da eguzkia beharrezkoa dela gure organismoaren metabolismo eta barne prozesu ugari modu egokian egiteko, hala nola: D bitamina sortzeko, egoera mental eta animiko egokia izateko, azaleko zenbait gaixotasun tratatzeko... Gainera, frogatuta dago eguzki gabezia narritadura kognitibo eta funtzionalekin lotua dagoela.

Baina babes neurri egokiak hartu ezean, arazo larriak sor ditzake. Horren adibide garbia da azken urteotan azaleko minbiziak izan duen gorakada. Horrez gain, eguzki izpiek azalaren zahartze goiztiarra ere eragiten dute, horrek dakartzan arazoekin. Kontuan izan eragin kaltegarri hauek prebeni daitezkeela; beraz, hona hemen gomendio batzuk:

- Eguerdiko 12:00-16:00 bitartean, ez jarri zuzenean

**eguzkitan**, eguzkiak gehien berotzen eta kaltetzen duen momentua delako. Beraz, itzalpean egon eguneko ordu beroenetan.

- Eguzkitik babestea da garrantzitsuena; horretarako, erabili **arropa, bisera eta betaurreko egokiak**. Kontuan izan begiei UVA izpiek goizeko lehen eta arratsaldeko azken orduetan eragiten dietela gehien. Betaurrekoak aukeratzeko orduan, lentearen kalitateak (UVA izpien aurkako babesak) eta armazoiak (zenbat eta gehiago estali, hobeto) dute garrantzi gehien. Garestienak ez dira zertan onenak.
- **30 puntutik gorako** krema edo fotoprotekzioa erabiltzea gomendatzen da. Zer adierazten du zifra horrek? Egun eguzkitsu batean, babesik gabe, 20 minutu behar ditugu erretzeko; 30 babes neurriko krema erabiliz gero, 30 aldiz denbora gehiago beharko ditugu erretzeko (hau da, 20 minutu ordez, 600 minutu).
- **Kontuz segurtasun faltsuekin!** Batzuetan pentsatzen dugu krema

**EGUZKIA ONA IZANIK  
ERE, BABES NEURRI  
EGOKIAK HARTU  
EZEAN, ARAZO  
LARRIAK SOR DITZAKE**

gorputz osoan eta ondo ematen dugula, baina zenbait ikerketak adierazi dutenez, ez gara iristen gure gorputzaren % 10 babestera. Horregatik, gomendatzen da **aldi bakoitzean birritan ematea eta 2 orduan behin errepikatzea**, nahiz eta 50 puntuko krema eman.

- Askotan krema botilek luzaroan irauten dute; kontuan izan behar da kremak bere eraginkortasuna gal dezakeela kasu horietan.
- Uretatik irtendakoan **ondo lehortu** toallarekin, ur tantek lupa efektua eragiten baitute gure azalean. Bestalde, nahiz eta “waterproof” edo urarekiko erresistenteak diren kremak erabili, bainu luzeak (30 minututik gorakoak) eman eta gero, komeni da krema berriz ematea.
- Esposizioaren lehen 3 egunetan babes neurri zorrotzagoak hartu, azala pixkanaka ohitzen joan dadila. Zoritxarrez errez gero, 10 eguneko atsedena beharko luke larruazalak.
- Eguzkitan egon ondoren, azala ongi hidratatu.

Amaitzeko, azpimarratu behar da azaleko minbiziak eta patologia ugari prebeni daitezkeela. Nahiz eta bakoitzak predisposizio edota joera ezberdina dugun, gure esku dago eguzkiak disfrutatzea modu osasungarrian. ■■■

**PUBLIZITATEA**



**iriando optika**

Kantauri plaza, 8. Zumaia, tel.: 943-86 04 86  
Nagusia, 53. Azkoitia, tel.: 943-85 19 84

**IRUDI OTS**



Ikuskizun orotarako soinua  
eta argiztapen alokairua  
Hotz eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

**IRUITZ ILEAPAINDEGIA**



San Telmo, 12  
Tel.: 943-86 07 60

**JUARISTI**  
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77



943-86 20 83

ORRAZTEGI  
ZUMAI

**KABI** TABERNA

Petxita Etxezarreta, 15  
943-11 74 27



**Kaithermik S.L.**



**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



Upela plaza, 8  
tel. 943-86 25 17

**kalari**

**LABARRA TABERNA**  
ZUMAIA  
est.2016

Ondartxo plaza 5, Tel. 943-86 04 84



**malaur**

**CROISSANTERIA**

pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

**marina**

Ballasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46



**MENDI - ONDO S.L.**

**Elektrizitatea**

Uroia plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69  
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3 blokea tel. 943-86 16 91



**LIDEN**  
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz  
678 875 652/ 943 905 983  
lur@olidenreformas.com  
www.olidenreformas.com



**NOIA S.L.**

**TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK**

**Etegabeko garabi zerbitzua** 636 86 78 12 (Zumaia)  
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaia  
Tel.: 943-86 13 63  
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industriagunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943-60 62 91  
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



**OSA  
BERNIZATUAK**

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 - tel. 943-86 14 12 - 686 36 41 49

# Aitona-amonen egitekoaz

HAURREN ZAINZA



**IZAR ARREGI**

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Telefono deia:

- Kaixo, ama, Nerea naiz. Aizu, esan nizun datorren astean arratsaldean umeak hartzeko, baina kontua da Joxeani laneko ordutegia aldatu diotela. Goizez etortzerik bai?
- Ostegunean okulista dut, ordea!
- Zer ordutan? Bakarrik udaleku irekietara eraman 10:00etarako, eta ondoren 13.00etan jaso...
- Ez dakit iritsiko naizen, 11:00etan daukat ordua... Beno, badaezpada hitzordua aldatuko dut, auskalo orain noizko emango didaten!
- Ondo, presaka naiz eta gero arte...

## **Zer ari da gertatzen gaur egungo aitona-amonek bilobekin jokatu beharreko paperarekin?**

Kasuak eta kasuak daude, noski, baina esan genezake gaur egun aitona-amona askok ez dutela aukerarik berez dagokien papera jokatzeko. Amona, zaintzaile eta ama dira aldi berean askotan.

## **Zergatik gertatu da aldaketa hau?**

Garbi dago gizartean aldaketa handi bat gertatu dela azken hamarkadetan: emakumeak lan munduan integratzea lortu du. Baina emakumeak lehen etxean zituen ardurei (umeak zaintzea, besteak beste) erantzuteko mekanismoak askotan ez dira egokienak: ardurak ez dira behar bezala banatzen

bikotean, gizarte zerbitzuen babesa ez da nahikoa, lan ordutegiak ez dira bateragarriak umeen zaintza beharrekin... Azkenean, aitona-amonengana jotzen dugu, konfiantza dugulako beraiengan, zaindari bat kontratatzeko gastua aurrezten dugulako...

## **Baina zer ondorio izan ditzake horrek?**

Askotan gehiegizko karga eta ardura ezartzen diegu aitona-amonei. Beraiei ez dagokien paper bat jokatzera behartzen ditugu. Ahal duten ondoen betetzen dute, baina arazoak sortzen dira askotan.

Amonari eta aitonari dagokienez, seme-alabekin egindako akatsak zuzentzeko edo galdutako aukerak berreskuratzeko tentazioa izan dezakete. Agian, lanagatik edo ezinagatik, ez ziren seme-alabak nahi bezala hazteko gai izan eta orain bigarren aukera ikusten dute bilobengan. Akats handia da hori. Galdutakoa galduta dago, ezin da berreskuratu ama edo aita papera, orain aitona-amonak dira.

Haurrak hezteko ardura gurasoena da, ez aitona-amonena. Baina eguneroko zaintzaren ardura hartu behar badute, ezinezkoa da hezitzaila papera ez jokatzea, hurrek mugak behar dituzte eta. Aitona-amonek, berez, bilobez gozatu egin beharko lukete.

Haur horien gurasoen ikuspegitik, egoera oso eroso

da printzipioz, baina zailtasunak ager daitezke, bakoitzak jokatu behar duen papera ez badago garbi. Gaur ama den alaba horrek bere amaren menpekotasun handia izan bazuen eta bere seme-alabak haren zaintzapean uzten baditu, amona horrek hartuko du "agintea", alaba ez da garatuko pertsona bezala eta horrek familia osoan izan dezake eragina. Haserreak ere gertatzen dira, gurasoek eta aitona-amonek ikuspegi diferenteak daukatzelako.

Familiaren ikuspegitik, amona oso sartuta baldin badago biloben zaintzan, askotan aita bigarren planoan gelditzen da, psikologikoki urrun. Hori gizonarentzat oso eroso da, lanak eginda ikusteaz gain, emaztea lasai ikusten du eta berak haurrak izan aurreko bizitza egin dezake. Baina horrela ez da sortzen familia nuklearra. Momentuz ez dago arazorik, baina nerabezaroan ager daitezke, haurrak aita eta ama behar dituelako, ez amona edo aitona.

Beraz, ondo hausnartu behar da zer aukera dauden kasu bakoitzean. Egoera pixkanaka bideratzeko ahaleginak egin behar dira, eta ez da utzi behar haurren karga guztia aitona-amonen gain. Ahal bada, zaintzaile bat hartu eta amonak laguntza osagarria eman dezala, baina beti amonaren papera aitortuz. ■■■




# Mutrikuko Amonite erraldoien misterioa

Euskal Kostaldeko Geoparkea txikia da, bai, baina altxor geologiko ugari gordetzen ditu. Zenbat eta gehiago ikertu, are eta harrigarriagoak dira gure arrokek kontatzen dizkiguten istorioak. Erdiaren erdia ezagutzen dugula ere ez nuke esango. Hori da Geoparkearen helburu nagusietako bat: ondare zabal hori ikertu, babestu eta ezagutaraztea.

Testua eta argazkiak:

**Asier Hilario Orus.**  
**Geologian doktorea eta**  
**Geoparkeko koordinatzaile**  
**zientifikoa.**

**A**ltxor harrigarri horietako bat Mutrikun daukagu. 2007an ireki zen Nautilus museoan, literatura zientifikoan ezagutzen den amonite erraldoien bilduma handienetarikoa bat ikus daiteke. Bai! Ondo irakurri duzu. Munduan ezagutzen den amonite erraldoien bilduma handienetarikoa bat gure geoparkean dago. Bitxia benetan fosil ikusgarri hauen atzean dagoen historia pertsonala eta zientifikoa. Nork bildu zituen? Zergatik egin ziren erraldoi amonite hauek momentu eta kokapen zehatz horretan?



Kardalako labarretako flysch beltza. GONZALO TORRE



Amonite erraldoiak labarretan.



Nautilus museoan bildumaren zati ikusgarriena dago.

### Narvaez Bildumaren historia

1975. urtean, Jesus Maria Narvaez, Mutrikun bizi den Bergarako mendizale eta bildumagilea, Kardaleko labarretan fosil handien maskorrak ikusten zirela konturatu zen. Azken 40 urteotan, itsasbeherak aprobetxatuz, bere emazte Esperanza Azkarraga eta kolaboratzaileekin poliki-poliki 150 ale baino gehiago berreskuratu dituzte itsasoak higitu eta desagerrarazi aurretik. Ikaragarritzko lana izan da. Mutrikuko amoniteak oso gogorrek dira eta arroketatik zizelarekin ateratzea ez da lan erraza izan, ez eta bere kokalekutik Mutrikuraino eramatea ere. Ale bakoitzak 20 kilo baino gehiago pisa ditzake, eta marearteko zabalgunean ibiltzea ez da erraza.

Ez hori bakarrik; urte hauetan guztietan ateratako aleak garbitu eta tailatu egin ditu, baina baliagarriena bere zintzotasuna izan da: Jesus Mari Narvaezek beti nahi izan du altxor geologiko hau Mutrikuko ondare bilakatzea, Mutrikuko biztanle eta bisitarien zat bat balioa izango duen errekurso kultural bat sortzea, alegia.




Jesus Maria Narvaez Nautilusen lanean.

### Ikerketa

Bildumagilearen lan honi esker, itsasoak higituta desagertuko ziren ale horiek guztiak berreskuratu ahal izan ditugu, bai, baina bilduma honek hutsune handi bat zuen: fosilek beren testuingurua falta zuten. Fosil batek eman dezakeen informazioa ulertzeko, ezinbestekoa da inguruan dituen arrokak eta beste fosilak ere



Mikel Lopez-Horgue eta Luis Agirrezabala labarretan amoniteak kokatzen.



Zutabe estratigrafikoa eta amoniteen kokapena.

ulertzea. Fosil bat lekuz kanpo hitz bat esaldirik gabe irakurtzea bezala da. Zein da bere esanahia?

Horregatik, 2015. urtean Geoparkeak eta Euskal herriko Unibertsitateak ikerketa proiektu bat jarri zuten martxan, Mikel Lopez-Horgue paleontologoa eta Luis Miguel Agirrezabala ikertzaileekin. Helburua: amonite erraldoien zergatia ulertzea. Horretarako lehen pausoa amonite bakoitzari zenbaki bat jarri eta bildumaren lehen sailkapena egitea izan zen. Bigarrena, Narvaezekin labarretara joan fosil bakoitzaren kokapena zehaztu eta guztiak ortofoto batean marraztu ahal izateko. Hirugarrena eta zailena, Kardal labarretako flysch beltzaren zutabe estratigrafikoa egitea izan zen; hau da, bertan dauden kapa guztiak horizontalean bata bestearen gainean marraztea. Zutabe estratigrafikoak geologian lana egiteko ezinbesteko tresnak dira aukera ematen digutelako gure pertsonaiak (amoniteak) liburuaren orrialdeetan kokatzeko. Lan horren ondorioz, orain jakin dezakegu amonite erraldoi guztiak non, noiz eta nola agertzen diren. Orain bai gure amonite erraldoien misterioa argitzeko bidean gaude. Lehen pista:

amonite erraldoiak emek dira.

### Fumarolak, petrolioa eta amonite erraldoiak

Flysch beltza Zumaiako flyscha baino zaharragoa da. Duela 100 milioi urte inguru sortu zen eta Geoparkean Aitzuriko paretatik Saturraran bitartean dauden labarretan ikus daiteke.

Garai hartan, Behe Kretazeoan, Britainiatik gertu zegoen Iberiar penintsula poliki-poliki aldentzen hasi zen erlojuaren kontrako errotazio mugimendua eginez. Bizkaiko golkoaren sorrera izan zen hura. Mugimendu hark Euskal Herriko itsas hondoa pitzatu egin zuen. Europako kontinentetik higitutako sedimentuak itsas azpiko arroiletatik behera erortzen ziren arro sakonetara urez eta






Mikel Lope-Horgue 2019. urteko Geolodian Mutrikuko failaren mugimendua azaltzen.

hondarrez osaturiko luizi erraldoietan. Korrante hondo itsaso hondo ilun eta buztintsura iristen zirenean, turbidita izeneko hondarrezko geruza batean metatzen ziren. Deban eta Ondarroan horrelako adibide ederrak ikus ditzakegu, baina Kardal inguruko arrokak desberdinak dira. Han arrokak beltzak eta buztintsuak dira. Turbiditak ez dira azaltzen. Litekeena da itsaso hondo horretan Kardal ingurua ur eta hondarrez osaturiko korrante horiek iristen ez ziren altugune lasai bat izatea. Altugune horietan bizitza errazagoa izan zitekeen.

Geologian pista nagusiak detaile txikietan egoten dira maiz. Nola sortu zen altugune hori eta zer erlazio izan dezake amonite erraldoiekin? Kardaleko altugune hori Iberiar penintsularen errotazioaren ondorioz itsas azpian sortutako Mutrikuko failak altxatu zuten. Pitzadura hori aprobetxatuz sakonean berotutako presio handiko emari hidrotermalak egon ziren itsas azpian. Ura 100°C-tara ateratzen. Goranzko bidean ur bero horrek flysch beltzak duen materia organiko ugaria xurgatzen zuen eta hidrokarburoak sortzen zituen. Petrolioaren eta ur beroaren emari horiek itsas hondora ateratzen zirenean bakterioentzako elikagaiak ziren, eta horiek,aldi berean, gaur egun fumarola beltzetan ikusten diren ekosistema kimiosintesiko baten lehen kate maila. Ekosistema horretara egokitu ziren bibalbioak, koralak eta estromatolito fosilduak ikusi ahal dira!

Hor dago koska. Litekeena da amonite emeak errute garaian Kardal ingurura gerturatzea fumarola horien inguruan elikagai gehiago zituztelako. Momentuz hipotesi bat besterik ez da, baina ikerketa zientifikoan oinarritua eta, gainera, oso hipotesi polita. ■



Ur beroa eta hidrokarburoak itsas hondora bideratzen zituzten kanalak. Flysch beltzak nahikoa materia organikoa dauka hidrokarburo sortzaile potentzial bezala.

## OHARRAK

Mutrikuko amoniteen inguruko informazio gehiago nahi baduzu, bisitatu NAUTILUS museoa edo eman izena Geoparkeak eskaintzen duen NAUTILUS irteera gidatuan.

# Pasajeko ontzia, ubera ia galdua



**IMANOL AZKUE** imanol@azkue.eus

*Udararekin batera, hasi zaigu ibaian gora eta behera txalupa, moilatik Santiagoko hondartzara jendearen karrian. Ez da, ez, ordea, jarduera berria gurean: ia Zumaia sortu zenetik, ontziek etengabe egin izan dute ibilbide hori.*

Pasajeko ontziaren lehen aipamenak oso antzinakoak dira: Jose Antonio Azpiazu historialari eta antropologoaren arabera, 1578an emakumezko bat, Maria de Elola alarguna,

arduratu zen txalupa zerbitzuaz, sei urterako (“ha tomado en renta el barco público del río de esta villa”<sup>1</sup>); Martínez Kleiserrek, berriz, 1585eko aipamen bat aurkitu zuen udal agirietan<sup>2</sup>, eta harrezkero sarritan ageri dira dokumentu zaharretan ur gaineko zerbitzuaren berriak, batez ere nola edo zenbatean ematen zuten zerbitzua enkantean.

Ontzia hartzea herritarrentzat ez zen kapritxoa, beharra baizik, eta oso zerbitzu

garrantzitsua zen zumaiarentzat eta bidaiarientzat; izan ere, kostako errepidea (eta Zubiaundia) eraiki arte, txalupa hori zen garraio bide nagusia herritik ekialdera irteteko edo Getaria edo Artadi aldetik zetozenentzat, Urolaren itsasadarra zeharkatzeko. Ontziak Santiagoko hondartza eta Arbustain ingurua lotzen zituen, baina hori esatearekin batera, komeni zaigu orduko Zumaia imajinatzea: Santiago ia hondartza hutsa zen, Paolalde osoa padura, Amaiaiko plazan



Honela ikusiko zen Zumaia ingurua XIII. mendean, Zumaiegitik. DANIEL CARBALLO

ura zegoen, moila ere urbanizatu gabe...

Txalupa udal ondasuna zen, eta Udal Artxiboan sarritan aipatzen da zaharkituta edo hondatuta zegoela eta berria egin beharra, baina orduan ere beste premia batzuek izango zuten lehentasuna, eta hoberik ezean, sarritan hondatuarekin moldatu behar izaten zuten; beste batzuetan, berriz, txalupariak berak jartzen zuen ontzia, eta horregatik ez zion ordaintzen Udalarri zegokion kanona. Udal zerbitzua izanik, zenbaitetan herritarrentzat doakoa izan zen (eta urteko hainbestekoa ematen zion Udalak txalupariari), beste batzuetan kobratu egiten zieten herritarrei (pobreei eta militarrei izan ezik), tarifa desberdina izaten zen egunez eta gauez... Adibidez, 1865ean, Jose Zubia zen txaluparia; kontratua amaitu behar zitzaiola eta, berritzeko ordua iritsirik, kexu zen: “tenía algunas diferencias sobre la retribución con los vecinos de Artadi”; orduan, Udalak hau erabaki zuen hurrengo kontraturako: “que todo vecino tanto de esta villa y su jurisdicción, como forastero, pague al barquero por cada paso de la ría dos cuartos de día y cuatro de noche”<sup>3</sup>; urte batzuk geroagokoa, 1876koa, da beste aipamen hau: “Se trató sobre el paso de la Barca y se acordó era muy conveniente se formaran

condiciones, y en su vista se sacaría a remate, debiendo pagar los forasteros por ida y vuelta medio real y los del casco de la población gratis, advirtiéndole que los de Artadi, como es muy frecuente el paso, y además se dedican a la industria de la plaza debían ajustarse con los Barqueros”<sup>4</sup>.

1877an, L. Louis Lande idazle frantsesak *Trois mois de voyage dans le Pays Basque* liburua argitaratu zuen. Landek egonaldi luzea egin zuen Euskal Herrian Bigarren Karlistaldiaren (1872-1876) ondorioak aztertzen, eta Zumaiatik ere pasatu zen. Gau ilunean iritsi zen Santiagora Getariatik, eta han, karabinero batek hauxe galdetu omen zion: “[Getariako emakumeak] Nola ez dizu, ba, esan herrira iritsi aurretik Urolaren itsasadar zabala aurkituko duzula, eta ez dagoela zubirik edo pasabiderik hiru legoatara ez bada, eta ordu honetan pasatzeaz arduratzen dena oheratuta dagoela, eta ez duela egiten zerbitzurik?”<sup>5</sup>; gaua hantxe pasatu zuen Landek, Santiagon, hondar gainean etzanda, eta goizean goiz hartu zuen txalupa: “Hurrengo egunean, bostetan, errioa pasatzeaz arduratzen zenak ontzian eraman ninduen eta Zumaiako moilan ezarri nintzen, ibaiaren beste aldean”<sup>6</sup>. Txalupariak ederki zaintzen zituen herriko sarrera-irteerak, zein joan zen nora edo

zein etorri zen nondik zertara; adibidez, 1813an, epaiketa batean, hauxe deklaratu zuen Udaleko probestuak (alkatearen aginduak betearazten zituenak), Artadiko Gorostiaga baserrian bizi zen Iburgurenen arrastoaren atzetik: “y se informase del barquero si dicho Iburguren había pasado el barco hacia la parte de allá de esta villa, y habiéndolo hecho y cercionadose [sic.] el de ponente [sic.] en que sí, volvió a esta sala y les hizo presente que Iburguren había [sic.] pasado efectivamente en el barco al otro lado de la Ría”<sup>7</sup>.

Urte luzez, zubiatarak (Mari ospetsuaren senideak) arduratu ziren txalupa zerbitzuaz, eta enkantean emateko, Udalak beste subastetan bezala jokatzeko hasierako kopuru bat ezarri eta subastarako hitzordua jarri; egun horretan, kandela bat piztu eta suak irauten zuen bitartean zegoen aukera pujuatzeko; zenbatean ematen zuten? Urte batetik bestera bazegoen aldea, bazegoenez: 1876an, Manuel Zubiak eskuratu zuen zerbitzua, 560 errealetan; 1877an, berriz, Pedro Txapartegik, 1.660 errealetan; 1878an Manuek Aldazek, 200 errealetan... 1885ean eraiki zuten Zubiaundia, eta horrek hondoratu zuen pasajeko ontzia. Une hartan, bi ontzi zeuzkan Udalak, eta Pasaiara



**PUBLIZITATEA**



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaiz, 1 Tel. 943-14 31 12  
oskarbikirolak@euskalnet.net



**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.  
Joxe Mari Korta Industriagunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

**Ostolaza**  
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25  
Julio Beabide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net | www.mueblesostolaza.com

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53



**SOLOZABAL**  
autoeskolak

Etkezarreta, 19 • 943-861416  
zumaia@solozabalauteskolak.com

**Talaira**  
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



**Tapaia**  
Jatetxea

Erribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943-86 19 73

**TTAKUN TABERNA**



Izustarri, 3  
tel. 943-86 52 89

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondoak (kadilloa)  
Soltxitxak, oilskoak...  
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko -Tel. 943 573 905



**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA  
Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

**UZKUDUN**  
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel.: 943-11 63 97



**Xanti**  
ALTZARIAK

Amaiko plaza, 13 tel. 943-86 23 85  
www.xantialtzariak.com

**yoana** ileapaindegia



Amaia plaza,  
2 behea  
943-14 32 78

**Zalla**



- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urtza Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

**ZUMAIA AUTOESKOLA**  
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com



BASADI, 12  
20750 ZUMAIA  
tel. 94386 10 18 / Fax: 94301 61 26

**Zumaia Hotela**  
Jatetxea  
Kafetegia



Alai auzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61

**BALEIKEK**  
25 Urte

zatoz gurekin ospatzera



Garai batean, belaontziak nagusi zirenean, atoian laguntzen zieten txalupek portura sartzen eta portutik irteten, sokari tiraka, arraunean. Txalupa hau belaontzi baten bila doa, barraren irteeran. RICARDO ASCUNCE



Migel Manterola izan zen txalupari aritu zen azkenetako bat.

MANTEROLA FAMILIA



Jose Luis Antia *Panderonekoa* arraunean, 1990ean. JAVIER CARBALLO

saldu zituzten: “El concejal Don Bibiano Olaizola hace presente, que desde Pasages había tenido aviso del ofrecimiento de ciento cincuenta pesetas por las dos barcas propiedad de esta villa, y se acordó cederlas por dicha cantidad”<sup>8</sup>.

Zerbitzua kendu egin zuten, beraz, baina herritarrek jarraitu zuten Santiagorako joan-etorriak egiten. XX. mendearen

erdialdean, manterolatarrak aritu ziren Izaro txaletaren pareko eskaileretatik ibaiaren bestaldeko eskaileretara jendea eramaten eta ekartzen: Joakin, hasieran; Jakob, tarteka; eta azkenaldian Migelek bidaia asko egin zituen errioa zeharkatzen.

2019an, bi txalupa dabilzkigu ibaian, atzera-aurrera: bata, Moilatik Santiagoko

pantalanera; bestea, Moilatik Sarauneko zabalgunera. Baina garai batean bezala, pasatu orduko desagertu egiten da horien ubera, eta ez zaigu geratzen arrastorik uretan. ■

<sup>1</sup>AZPIAZU ELORZA, José Antonio: "Las mujeres vascas y el mar", *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 8, Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia, 2916, 818. or.

<sup>2</sup>MATÍNEZ KLEISER, Luis: *La Villa Villagrana de Zumaya*, Voluntad, Madril, 1923, 153. or.

<sup>3</sup>Zumaiako Udal Artxiboa, 1865-02-09, 73.01.

<sup>4</sup>Zumaiako Udal Artxiboa, 1876-0826, 73.02-33v.

<sup>5</sup>LOUIS LANDE, L. *Trois mois de voyage dans le Pays Basque*, Martin de Anguiozarren itzulpena, RIEV, 1930, 110. or.

<sup>6</sup>LOUIS LANDE, L. *Trois mois de voyage dans le Pays Basque*, Martin de Anguiozarren itzulpena, RIEV, 1930, 111. or.

<sup>7</sup>Zumaiako Udal Artxiboa, 1813-05-10, 223.02-38v.

<sup>8</sup>Zumaiako Udal Artxiboa, 1885-07-09, 2823-111.

# KULTURA

## Koroaren erronka errimatua

MUSIKA

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Erronkak maite dituen musika taldea da San Pedro Abesbatza. Ohikoa duen errepertoriotik ihes egin nahian, estilo eta sonoritate berrietara zabaltzeko grina du Amaia Aldalurrek zuzentzen duen abesbatzak. Hala erakutsiko du abuztuaren 1ean, Zumaiako Musika Jaialdiaren barruan, emango duen *Doinu zahar, kantu berri* kontzertuan.

“Urteko gure erronka nagusia Zumaiako Musika Jaialdian ematen dugun kontzertua da”, dio Iker Gonzalez Cobeagak, San Pedro Abesbatzako kideak. Aurtengo kontzertuan bertsoak eta musika uztartuko ditu koroak. “Amaia Aldalurrek gogoratu zuen behin Joanito Dorronsoro Ikastolara joaten zela bertso eta abesti zaharrak erakustera. Hori barrenean geratu zitzaion Amaiori”. Hari horri tiraka sortu zen abuztuko kontzertuaren ideia.

Ikuskizunak bertsoen eta abestien arteko bidaia proposatzen du. Modu ezberdinetako jantzi musikalekin, bertsolaritzan erabili diren hainbat doinuren errepaso egingo dute. Emanaldirako ideia sortu zenean, bilatze lanetan murgildu ziren San Pedroko lagunak. “Pentsa daiteke material dezente egongo dela, baina ez da hala”. Dorronsoro beraren laguntza jaso zuten. “Zumaian kokatutako bertso zahar batzuk eman zizkion



San Pedro Abesbatza, maiatzean Forondan eman zuen kontzertuan. MIRIAM ROMATET

Amaiori. Horien artean Resurreccion Maria Azkuek bildutako batzuk zeuden, eta horietako hirurekin abesti bat sortu dugu”. Bertso zahar eta berriez osatutako emanaldia izango dela dio Gonzalezek. Errenteriako Landarbaso abesbatzarentzat Gonzalezek berak sortutako bi obra ere abestuko dituzte.

Bidaia honetan lagunak izango ditu. Batetik, Trio Zukanek kolaboratuko du obra batzuetan. “Aukera oso polita da beraiekin kolaboratzeko, eta sonoritate berriekin jolasteko”. Ohiko kolaboratzaile duten Mari Carmen Azpeitiak ere parte hartuko du pianoarekin. Bertsoak protagonista diren emanaldi honetan ezin bertsolaririk falta. Amets Arzallus izango da abuztuaren 1ean Aitzuriko agertokian. Aurkezle lanak egingo ditu, abesbatzarekin ere kantatuko du obra batzuetan, eta, nola ez,

bertso batzuk ere kantatuko ditu.

Talde edo jende berriarekin kolaboratzea eta estilo berriak jorratzea aberasgarria dela uste du Gonzalezek, bai entzuleentzat, baita abeslari beraientzat ere. “Kanpora joaten garenean, gure errepertorioko lanen eta estiloen aukeraketa egiten dugu. Baina herrian jo behar dugunean, zerbait desberdina egin nahi izaten dugu”. Estilo desberdinetatik eta beste taldeekin egiten dituzun elkarlanetatik asko ikasten dela dio abeslariak. ■■■

### OHARRAK

Kontzertua 22:00etan izango da Aitzuri frontoian. Sarrerak aurrez salgai izango dira turismo bulegoan, 10 euroan. Egunean bertan Aitzuriko leihatilan erosi ahal izango dira 12 euroan.



# AGENDA

## UZTAILA

### 7 IGANDEA

**Kale antzerkia:** *Benditas*, El mono habitado.  
*Forondan 19:30ean.*

### 10-14

**Narrondoko jaiak.**

### 13 LARUNBATA

**Surf festa.**

### 14 IGANDEA

**Piraguismoko Urola igoera-jaitsiera.**  
*12:00etan.*

**Kale antzerkia:** *Babo Royal*, Ganso & Cia.  
*Odietan, 19:00etan.*

### 20 LARUNBATA

**Antzerkia haurrentzat:** *Pirata Garrapata*, Patata Tropikala.  
*Torreberrian, 18:00etan.*

**Kontzertua:** *Flysch* Zikloko organo eta saxofoiarena.  
*Parrokian, 20:30ean.*

**Kontzertua:** LEOK'K.  
*Eusebio Gurrutxaga plazan, 23:00etan.*

### 26 OSTIRALA

**Ikuskizuna:** *Udaleku musikalak.*  
*Zumaienan, 18:00etan.*

**Kontzertua:** *Quart de Pobleteko Cor Virelai* abesbatza.  
*Komentuan, 20:00etan.*

### 27 LARUNBATA

**Piraguismoa:** ZUmaia-Sakoneta-Zumaia.  
*16:00etan.*

**Kontzertua:** *Paddam bikotea*, musika frantsesa.  
*Mari kalean, 19:30ean.*

### 31 ASTEAZKENA

*Braderie*, Gertu merkatarien elkartearen eskutik.

### UZTAILAK 31-ABUZTUAK 11

**Zumaiako Musika Jaialdia.**

## MUSIKALDIA 2019

### UZTAILAK 31 ASTEAZKENA

**Jaialdiaren aurkezpena:** Ganuxi klarinete laukotea.  
*13:00etan.*

**Kontzertua:** Zumaiako Musika banda, *John Williams presents.*  
*Odietan, 22:00etan.*

### 1 OSTEGUNA

**Kontzertua:** *Doinu zahar, kantu berri*, San Pedro abesbatza, Trio Zukan eta Amets Arzallus.  
*Aitzurri, 22:00etan.*

### 2 OSTIRALA

**Musika eta zinema:** Javier Perez de Azpeitia, *El Gabinete del Doctor Caligari*, Robert Wiene (1920).  
*Oxford aretoan, 22:00etan.*

### 4 IGANDEA

**Kontzertua:** *Sapere Aude Sinfonietta*, Fernando Velázquez.  
*Zumaienan, 20:00etan.*

### 5 ASTELEHENA

**Opera-dantza proiektzioa.**  
*Aita Marin, 19:00etan.*

### 6 ASTEARTEA

**Kontzertu barrokoa:** *In Stil Moderno*, L'Estro D'Orfeo.  
*San Telmo ermitan, 20:00etan.*

### 7 ASTEAZKENA

**Donostiako Musika Hamabostaldia**, *Ensemble 442.*  
*Parrokian, 20:30ean.*

### 8 OSTEGUNA

**Kontzertua:** Alboka laukotea.  
*Mari kalean, 20:00etan.*

### 10 LARUNBATA

**Dantza:** *Block*, Amaia Elizaran. *Out of the Blue II*, LaRutan.  
*Odietan, 20:00etan.*

### 11 IGANDEA

**Tailerra:** *Hitzak*, Maushaus.  
*Oxford aretoan, 12:00etan.*

**Kantu Kontari:** *Bertoko eta urrutiko ipuinak.*  
*Mari kalean, 18:00etan.*

**Jazz kontzertua:** *Trizak.*  
*Mari kalean, 20:00etan.*

## UDA

**Abuztuak 3:** Gala eguna.

**Abuztuak 9:** Euskal Jai eguna.

**Abuztuak 17:** Kuadrilla eguna.

**Abuztuak 23-31:** Oikiako jaiak.

**Irailak 14:** Triatloia.

**Irailak 21:** Olarru eguna.

**Irailak 27-29:** Artadiko Jaiak eta Kosta Krossa.

# Bortxaketa sistematikoak



## HAN EZ BANENGO BEZALA

Egilea: Slavenka Drakulic  
Argitaratzailea: Pasazaite  
Argitarate urtea: 2018  
Orrialdeak: 210  
Generoa: Narratiba



**TESTUA:** ASIER ARAKISTAIN

Gerraz mintzo garenean, urruneko kontuez mintzo gara, bai distantzian urruneko egiten zaizkigulako, bai denboran urrun direlako. Hala ere, izan da gertu izan dugun gerra bortitza bat, gerra guztiak bortitzak izanagatik: 1992an hasi eta hiru urtez luzatu zen Bosniako gerra.

Gerra Jugoslaviaren desegitearen ondorio izan zen, Eslovenia eta Kroaziako sezesioei jarraiki, Bosnia-Herzegovinako independentziaren erreferendunean baiezkoak irabazi zuenean. Bosniako serbiarrek ez zuten emaitza onartu eta Serbiako gobernuarekin batera Bosnia erasotu zuten, non biztanleen % 44 musulmana zen, % 31

serbiar ortodoxoak eta % 17 kroaziar katolikoak.

Euskal Herritik 2.500 kilometrora izan zen gerra hartan ehun mila pertsona inguru hil ziren eta 10.000 eta 50.000 emakume artean bortxatu zituzten.

Bosniako gerrako bortxaketa sistematikoek helburu argia izan zuten: populazioaren garbiketa etnikoa. Jakina da aurreko eta ondoko beste gatazka batzuetan ere izan direla bortxaketak, baina historian lehen aldiz,

## BOSNIAKO GERRAKO BORTXAKETA SISTEMATIKOEN HELBURU ARGIA IZAN ZUTEN

Nazioarteko Zigor Auzitegiak gizateriaren aurkako krimentzat jo zituen gerrako bortxaketa haiek.

*Han ez banengo bezala* eleberrian, Slavenka Drakulic idazleak emakume haiek jasandako bortizkeria erakusten digu eleberriko protagonistaren ahots indartsuaren bitartez.

Suediako erbestetik ari zaigu, gordin baina sotil, apaingarririk batere gabe. Gerrako bere bizipenen kronika egiten du, nola atzeman zuten, nola atxiki zuten esparru batean beste emakume batzuekin batera, nola jasan zituen soldaduen sexu abusuak... Eta harrigarriena, nola ernatu zitzaion bizirik irauteko sena.

Esaldi motz eraginkorren bidez, egileak itolarrian darama irakurlea hasieratik amaieraraino. ■■■

# Kultura digitala



JOSU WALIÑO

**2**010. urtean erosi nuen nire lehen irakurgailu elektronikoa. Barnes&Noble liburu kateak kaleratutako *Nook* gailuaren lehen bertsioa izan zen, eta lagun batek ekarri zidan New Yorketik propio eskatuta. Garai hartan liburu elektronikoak nahiko gauza berriak ziren, baina ordurako paperezko liburuen desagerpena iragartzen hasiak ziren. Zorionez, iragarpen hutsean geratu zen eta paperak merezi duen tokia izaten jarraitzen du gure apalategietan, baina onartu behar dut *Nook* horrek bizitza aldatu zidala.

Alice Sebold idazlearen *The lonely bones* liburu ederra izan zen formatu digitalean irakurri nuen lehena. Ehunka liburu etorriko ziren atzetik, batzuk onak, besteak ez hainbeste, baina esan dezaket urte hauetan irakurri ditudan liburu gehienak digitalak izan direla. Irakurle amorratua naizen aldetik, abantaila asko aurkitu nizkion berehala gailu honi: liburu totxoen pisua amaitu zen, hizkuntza desberdinetako liburuak eskura nituen, maleta liburuz bete gabe oporretara joatea, eta batez ere, etxeko

apaletan toki gehiago izatea, bestea beste.

Nire *Nook* hura zahartu den arren, liburu elektronikoak ohiko bilakatu dira gure bizitzan. Eta liburuen kasuan bezala, beste esparru askotan ere kulturaren digitalizazioak gure kontsumo ohiturak aldatu ditu: iPodak musikaren iraultza ekarri zuen mende hasieran, baina gaur egun Spotifyk bigarren iraultza eragin du. Antzera gertatu da zinemarekin, Netflix, HBO eta antzeko plataformen etorrerarekin: pelikulak eta serieak kontsumitzeko modua aldatu da, edozein unetan eta edozein tokitan ikus ditzakegu arazorik gabe. Nork ikusten du telebista lehengo moduan? Nahieran ikusten dugu edo bestela Youtubek ematen digu nahi dugun guztia.

Ez dago gaizki, kultur kontsumitzaile garenontzat

**NOOK HURA ZAHARTU DEN ARREN, LIBURU ELEKTRONIKOAK OHIKO BILAKATU DIRA GURE BIZITZAN**

leiho berriak zabaldu dira, aukerak gehitu zaizkigu, baina itsaso zabala izan arren, askotan honek aukeren murrizketa ere eragiten du. Esaterako, liburu digitaletan liburu denda txiki askoren desagerpena ekarri du Amazon moduko erraldioen mesedetan. Disko dendei buruz antzeko zerbait esan genezake, musika batez ere digitalki kontsumitzen baita, nahiz eta biniloaren berpizkundera sumatzen den. Baina esango nuke datozen urteetako benetako erronka ikus-entzunezko alorrean izango dugula.

Generazio berrien hizkuntza ikus-entzunezkoa da erabat; audio, bideo eta irudien bidez komunikatzen dira. Gaur egun Interneten mugitzen den trafikoaren erdia baino gehiago ikus-entzunezkoa da: pelikulak, serieak, Youtube eta bideo jokoak.

Baina euskarak ez du apenas tokirik eremu hauetan. Bada garaia gure kulturaren digitalizazioaren erronka plaza guztietara zabaltzeko, ez badugu euskal kultura nire *Nook* zaharraren moduan ikusi nahi, erabilgarri baina zaharkituta. ■■■



# Mary Agnes & Denis



JUAN LUIS ROMATET

**M**ary Agnes Donahuek 17 urte zituen 1975. urtean. Bere gurasoekin eta ahizpa zahararekin bizi zen Pasadena hiriko bizitegi auzo batean. Neska adeitsua, irribarretsua, ikasle ona eta musikazale porrokatua zen Mary Agnes. Jackson Five eta garai hartan sona hartzen hasia zen disko musika zituen maite, eta asteburuetan hiriko diskoteketara joaten zen lagunekin dantza egitera eta mutilak ezagutzera. Apirilaren 24an, ordea, Los Angelesera joan zen Dolores ahizparekin Pink Floyden kontzertu bat entzuteru. Berez ez zuen Pink Floyd gogoko, zaharren “rollo txar” bat iruditzen zitzaion. Baina Doloresek laguna behar zuen kontzertura joateko, eta baiezkoa esan zion.

Gurasoen Chevoletetan egin zuten Los Angeleserako bidaia. Udaberriko egun eder bat zen. Kontzertua estadio olinpikoan izan zen, eta heldu zirenerako iluntzen hasita zegoen. Harmailetan gora eta behera ibili ziren beraien eserlekuak aurkitu zituzten arte. Hot dog eta Coca Cola bana zituzten eskuetan. Eseri, eta afaltzen zuten bitartean, gauza batez eta besteaz hitz egiten hasi ziren. Halako batean, mutil gazte bat eseri zen Mary Agnesen alboan. Ile motza zuen, beltzarana zen eta The Doors taldearen kamiseta bat zeraman jantzita. Galduta egongo balitz bezala begiratzen zuen ingurura, hura bere lekua izango ez balitz bezala.

Halako batean, argiak itzali ziren eta Pink Floydeko lau taldekideak azaldu ziren agertokian. Lehen kanta amaitzerako estadioa sutan zegoen; bertaratutako milaka lagunak txaloka eta oihuka ari ziren... Mary Agnes eta aldamenen zuten mutil beltzarana izan ezik. Hauek isilik zeuden. Mary Agnesek begi zeharka begiratzen zion mutilari. Gustatzen zitzaion, bai. Bigarren abestiko gitarra soloa 17. minutura heldu zenean, Mary Agnesek, erabat aspertuta, arnasa sakon hartu zuen eta bere burua aurkeztu zion alboan zuten mutilari.

- Kaixo, Mary Agnes naiz, eta zu?
- Ni Denis –erantzun zion honek.
- A zer rolloa den hau, ezta?
- Ba, egia esan, bai. Eskolako lagun bati konpainia egitera etorri naiz, eta ez da agertu.

Eta Mary Agnes eta Denis hitz egiten jarri ziren. Diskotekak zirela, surfa zela. Atzean eta alboan zituzten entzuleek, mesedez, isiltzeko eskatzen zieten, baina bikotea burbuila baten barruan zegoen, ez zituzten entzuten inguruko jendearen “shhhhhh” haiek.

Ordutik, kontzertuetan hitz egitea moda bihurtu zen, eta, harrigarria bada ere, sare sozialik ez zegoen garai hartan, mundu osora zabaldu zen. Orain, Mary Agnes eta Denisi esker, ez dago kontzerturik hitzontzi, berritsu, berri ipurdi, berri lapiko edota kontakatilurik gabe. ■■■

**ETA MARY AGNES ETA  
DENIS HITZ EGITEN  
JARRI ZIREN.  
DISKOTEKAK ZIRELA,  
SURFA ZELA**

# BRADERIE

## Dendak kalean

ZUMAIA  
UZTAILAK 31  
31 de julio

Egun osoan musika, antzerki ibiltaria,  
aurpegi margotzea eta gehiago!

¡Durante todo el día música, teatro callejero,  
pintacaras y mucho más!

Se sortearán vales de compra por valor de

**200€**

zozkatuko dira erosketan baleetan



# 35.

## ZUMAIKO MUSIKA JAIALDIA



Zumaia Udalak

Donostia Musika Herriabostaldia  
Quincena Musical de San Sebastián



### UZTAILA

#### 30, asteartea

19:30 Aita Mari **Opera proiektzioa**  
*Madama Butterfly*, Giacomo Puccini

#### 31, asteazkena

13:00 Mari kalea **Ganuxi klarinete laukotea**  
Jaialdiaren aurkezpena  
22:00 Odieta **John Williams presents**  
Zumaia Musika Banda

### ABUZTUA

#### 1, osteguna

22:00 Aitzuri **Doinu zahar, kantu berri**  
San Pedro abesbatza, Trio Zukan, Amets Arzallus

#### 2, ostirala

22:00 Oxford aretoa **Musika eta zinema**  
Javier Perez de Azpeitia  
*El Gabinete del Doctor Caligari*  
Robert Wiene (1920)

#### 4, igandea

20:00 Zumaiena aretoa **Sapere Aude Sinfonietta**  
Zuzendaria: Fernando Velázquez

1. Biolin Kontzertua, F. Mendelssohn  
35. Sinfonia, 'Haffner', W.A. Mozart

#### 6, asteartea

20:00 San Telmo ermita **Kontzertu barrokoa**  
*In Stil Moderno, L'Estro D'Orfeo*

#### 7, asteazkena

20:30 Parrokia  
**Donostiako Musika Herriabostaldia**  
**Ensemble 442**

• Piano Trio No 1 in re menor  
Op. 49, F. Mendelssohn  
• Las 4 estaciones porteñas  
Astor Piazzolla

#### 8, osteguna

20:00 Mari kalea **Alboka laukotea**

#### 10, larunbata

20:00 Odieta **Dantza**  
**Block, Amaia Elizaran**  
*Out of the Blue II, LaRutan*

#### 11, igandea

**Donostiako Musika Herriabostaldia,**  
**Haurren eguna**

11:00 Oxford aretoa **Tailerra**  
**Hitzak, Maushaus**

18:00 Mari kalea **Kantu Kontari**  
**Bertoko eta urrutiko ipuinak**

20:00 Mari kalea **Jazz kontzertua**  
Trizak



# ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: [talasoterapiazelai.com](http://talasoterapiazelai.com)

Tel. 943 865 100

Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era

Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.

Talasoterapia



*Ezkontzak, Batailoak, Jaunartzeak*

*Lore-zentruak, Koroak*

*Landare naturalak eta artifizialak*

*Zermika-lanak eta zumezko saskiak*

***Etxez etxeko zerbitzua!***

**Santiago auzoa, 18**

**Tel. 943 862 611**